

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Adinekoekiko Euskal Estrategia

2021-2024



Adinekoekiko Euskal Estrategia



2021-2024

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkibidea

| | | |
|---------------------------------|--|----|
| <hr/> | | |
| Sarrera | Bizi luzetasunaren joera | 10 |
| | Zahartzeari buruzko politiken azterketa | 22 |
| | Metodologia | 28 |
| <hr/> | | |
| Ikuspegia eta helburu orokorrak | | 30 |
| <hr/> | | |
| Printzipioak | | 32 |
| <hr/> | | |
| Esku hartzearen ardatzak | I. Ardatza. Herritar aktiboak | 36 |
| | II Ardatza trantsizioak eta bizi proiektuak | 40 |
| | III. Ardatza. Autonomia eta hauskortasuna | 43 |
| | IV. Ardatza. Arreta eta zainketak | 46 |
| | V. Ardatza. Ikerketa eta berrikuntza | 49 |
| <hr/> | | |
| Proiektu eragileak | Euskadiko adinekoen batzordea | 53 |
| | Helduak zabaltzen | 54 |
| | Nagusi agenda | 56 |
| | Euskadi lagunkoia | 57 |
| | Altxor | 58 |
| | Bizitza betea | 59 |
| | BetiOn | 60 |
| | Zainketa sozialen politika | 61 |
| | Zaintza lurraldea | 62 |
| | Zahartzeari eta zainketei buruzko luzetarako azterketa | 63 |
| | Next-care | 64 |
| <hr/> | | |
| Jarraipena eta ebaluazioa | | 67 |
| <hr/> | | |
| Erreferentzia bibliografikoak | | 69 |

Sarrera

Bizi luzetasunaren joera

Bizi luzetasunaren iraultza
Profil aniztasuna
Familia egitura berriak
Osasunaren eta mendekotasunaren erronkak
Eraldaketak iraupen luzeko zainketetan
Zahartze aktibotik bizitza bete-betera
Aldaketak lan egiteko eta erretiratzeko erduetan
Silver economy deritzonaren arrakasta
Ondorioak

Zahartzeari buruzko politiken azterketa

Metodologia

«Urte gehiago bizi garenez, aukera dugu hau aztertzeko: nolakoa izango den zahartzaroa, eta nola alda litekeen gure bizitza-zikloa»

(OME, 2016).

Bizi luzetasunaren iraultza da egungo gizartearen erronka sozial eta ekonomikoa. Politika publikoek zenbait estrategia garatu dituzte zahartzen ari diren herritarren ongizatea eta zaintza bermatzeko, eta gizartea zahartze-prozesu horretara egokitzeko, bizi-ziklo osoa aintzat harturik.

1990eko hamarkadakoak dira Euskadiko plangintza gerontologikoaren hastapenak; garai hartan egin zen **Euskadiko Lehen Plan Gerontologikoa**. Besteak beste, hau zuen helburu Planak: aurre egitea zahartzaroan aisia eta denbora librea aprobetxatzeko eta erretiro garairako prestatzeko aukeren eskasiari. 1994an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak **Bigarren Plan Gerontologikoa**, jada arazoari aurrea hartzen ziona: adineko jendea bere ohiko ingurunean eduki behar dela aldarrikatzen zuen, eta prebentziozko esku hartze komunitarioak lehenesten zituen. **Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu egokian aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak** 2011ko agirian adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak zahartzeari buruzko bere hurrengo estrategia politikoa, zeinak hau aldarrikatzen baitzuen: adinekoen autonomia eta konpromiso soziala sustatzea, arretaren kalitatea hobetzea, eta tratu ona bermatzea. Handi urte gutxira —2014an— **Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia** (ZAEE) plazaratu zen, eta 2015-2020 epean aplikatu, betiere zahartze aktiboa sustatzea zuela xede, nazioarteko irizpide politikoei jarraikiz. Hiru ardatz nagusi zituen Estrategiak: 1) gobernantza eredu berri baterantz jotzea, adinekoak protagonista direla, 2) aurrerapenaz eta prebentzioaz baliatzea hobeto zahartzeko, eta 3) lagunkoitasuna eta parte-hartzea.

Harrezkeroztik, adinekoentzako eta haiekin lotura dutenentzako zenbait estrategia eta politika prestatu dira Euskadin. Horietako bat dugu **Adinekoekiko gobernantzaren euskal estrategia (2019-2022)**, zeinaren helburua hau baitzen: zahartzen ari diren herritarrentzako gobernantza eredu bat sustatzea, haiei eragiten dieten arazoak zehaztuz, eta administrazio publikoarekin batera prestatutako soluzioak eta proposamenak bilatzea, ekarpen publikoa eta soziala dakartenak. Gaur egun, berriz, plan eta politika hauek ari dira prestatzen: **Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa**, onartu zain dagoena; **Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitaria (2021-2030)**, duela gutxi aurkeztua, **eta Gizarte zaintzen politika eta zaintza eredu baterako trantsizioaren** planteamendua. Esku artean duzuen Estrategia honekin eta beste tresna politiko batzuekin batera, horiek izango dira Euskadiko plangintza gerontologikoaren oinarria hurrengo urteotan. Azkena aipatu dugun agiriak orientabide hau azpimarratzen du: bizi ziklo osoa aintzat hartuta antolatzea zaintza politika eta zaintzen antolakuntza soziala, familien ardura gutxituz eta gizartearena zein erakunde publikoena areagotuz, genero-ikuspegia oinarri dela.

XII. Legealdiko Gobernu Programak (2020-2024), berriz, zahartzearen gaineko zenbait konpromiso jasotzen ditu; besteak beste, honako hauek: bultzada estrategikoa ematea zahartze aktiboari, eta adinekoen autonomia pertsonala, partaidetza soziala eta bizitzaren gozamen osoa bultzatzea; bakarrik dauden adinekoek laguntzea; adinekoek jasotzen duten laguntzaren kalitatea bermatzea; sendotzea etxeko eta hurbileko arreta, eta adinekoen aldeko jarduera ekonomikoa eta berrikuntza soziala sustatzea.

Bestalde, berrikitan jarri da martxan **Erronka demografikorako euskal estrategia (2030)**, 36 ekimen osagarrikoa, helburu hau duena: demografia suspertzen lagunduko duten zenbait neurri eta egoeraz osatutako ekosistema bat sortzea. Bestalde, ardatz estrategiko baten inguruan lantzen dira biztanleriaren zahartzea, adinekoen autonomiaren sustapena eta haien gizarte eta osasun zaintzen bermea, eta helburu hauek ezartzen 2030erako:

- Bultzada estrategikoa ematea zahartze aktiboari, eta adinekoen autonomia pertsonala, partaidetza soziala eta bizitzaren gozamen osoa bultzatzea.
- 86 urtera igotzea bizi itxaropena, bai eta bizi osasungarri eta desgaitasunik gabearena ere.
- Alor horretan emaitza onenak dituzten herrialdeen mailara eramatea helburu hori lortzeko politikak. Erreferentzia: zahartzea aktiboaren Europako indizea.
- Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat bultzatzea, eta osasun zein gizarte zaintzetarako tokiko ekosistemak sustatzea, batez ere lehen mailako arreta eta prebentzio soziosanitaria sendotuz, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiari jarraikiz.

Azken urteotako ikaskuntza eta aurrerapen guztiak ditu oinarri esku artean duzun **Adinekoekiko Euskal Estrategiak**, eta jarduera eremu horretako egungo politikekin bat egiten du, pertsona lehenesten duen planteamendu holistikoa bat aintzat harturik.

Agiri honen lehen zatian abiapuntuaren deskribapena egiten da, alderdi hauek aztertuta: Euskadiko bizi luzetasunaren joerak; zahartzeari buruzko Espainiako, EAeko eta nazioarteko politikak, eta Estrategia hau prestatzeko erabilitako metodologia. Ondoren, Estrategia gidatzen duten ikuspegia, helburu orokorrak eta printzipioak datoz. Jarraian, esku hartzearen bost ardatzak, hurrengo urteotarako xedeak eta konpromisoak jasotzen dituztenak. Azkenik, helburuak eta konpromisoak egituratuko dituzten proiektu eragileak ditugu.

Bizi luzetasunaren joera

Adinekoekiko Euskal Estrategiaren abiapuntu gisa, zahartzen ari den Euskadiko biztanleriaren joerak aztertu dira. Izan ere, bizi luzetasunaren iraultza dugu XXI. mendean gure gizarteak izango duen eraldaketa nagusietako bat. Bizi-zikloaren etapetako aldaketek adinekoei ere eragiten diete, eta oso bizkor ari dira eraldatzen gizarteko segmentu horren zahartzeko erak, zahartzaroa definitzeko eta bizimodua ikusteko eta planteatzeko modua..., bai eta osasunari eta gaixotasunei buruzko ikuspegiak ere. Zahartzaroaren eta erretiroaren gaineko egungo irizpideak alde batera uztea dakar berekin «bizi luzetasunaren iraultza» deritzonak, eraikuntza sozial horiek ez baitira baliagarriak gizakion bizitza beste 30 urte luzatzen ari den honetan (Kalache, 2013).

Epigrafe honetan jaso ditugu —laburtuta— bizi luzetasuna dela eta Euskadik dituen erronketako batzuk, ikuspegi orokor batetik aztertzeko euskal gizartearen joerak, politika publikoek jorratu beharrekoak.

1. taula. EAEko biztanleria, adin tarte, sexu eta lurralde historikoka (2020)

| | Miles de personas | | | | | Ehunekoak | | |
|----------|-------------------|---------|---------|-------------------------|--------------------------|-----------|-------|--------|
| | Guztira | 50-64 | 65-79 | 80 urte eta hortik gora | 665 urte eta hortik gora | 50-64 | 65-79 | 80 y + |
| EAE | 2.220.504 | 491.695 | 341.482 | 157.950 | 499.432 | 22,1 | 15,4 | 7,1 |
| Araba | 333.940 | 71.830 | 49.275 | 21.201 | 70.476 | 21,5 | 14,8 | 6,3 |
| Gipuzkoa | 727.121 | 157.051 | 112.719 | 50.499 | 163.218 | 21,6 | 15,5 | 6,9 |
| Bizkaia | 1.159.443 | 262.814 | 179.488 | 86.250 | 265.738 | 22,7 | 15,5 | 7,4 |

Iturria: INE: INEBASE: Padrón Continuo, 2020.

Bizi luzetasunaren iraultza

2020an, 65 urteko eta hortik gorako 499.432 herritar zituen Euskadik, biztanleriaren % 22,5. Kopuru horretatik, 80 urtetik gorakoak dira 157.980 herritar, hots, biztanleria osoaren % 7,1 eta adinez nagusiko biztanleriaren % 30,7.

Ugalkortasunaren jaitsierak eragin du Euskal Herrian azken hamarkadotan izaten ari garen adineko populazioaren handitzea. 1975-1976 epean, 2,67 zen ugalkortasun indize sintetikoa; batez besteko amatasun adina, berriz, 28,6 urte. 2018-2019 epean, 1,25 zen ugalkortasun indizea; batez besteko amatasun adina, berriz, 33,0 urte.

Zahartze demografikoaren eragile ez ezik, baditu beste ondorio batzuk ere jaiotza-tasaren bilakaerak: igo egin da bizi-itxaropena, eta jaitsi heriotza-tasa. Eustaten azken datuen arabera, honela aldatu da bizi-itxaropena (jaiotzeko unean) 1975-1976 epeetik 2018-2019ra: gizonena, 69,6 urtetik 80,8ra; emakumeena, berriz, 76,9tik 86,6ra. Honenbestez, 11 urte baino gehiago igo da gizonen bizi-itxaropena azken 40 urteotan, eta 9 baino gehiago emakumeena.

Baina bizi-itxaropenak goranzko joera erakusteak ez du esan nahi osasun goera onean ematen direnik —

nahitaez— adierazle horri dagozkion urte gehigarriak. DGBI edo desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena deritzonak adierazle bakar batean biltzen ditu bizitzaren iraupena eta bizi-kalitatea. EAEko 2018ko Osasun Inkestako datuen arabera (EAEOI), 2013koarekiko bilakaera desberdina izan du desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenak (DGBI) gizonen eta emakumeen artean: gizonenak 1,2 urte egin zuen gora 2013-2018 epean; emakumeenak, berriz, 0,3 urte egin zuen behera.

Bestalde, 2020ko osasun krisiak aldatu egin ditu bizi itxaropenaren goranzko joerak. EINen arabera, heriotza-tasa igotzeak berekin ekarri zuen bizi-itxaropenaren jaitsiera: 2020an, 1,24 urte egin zuen behera. Batez besteko bizi-itxaropena 82,34 urte da, eta emakumeenak altuagoa izaten jarraitzen du (85,07 urte) gizonenak baino (79,60 urte). Beraz, ia hamarkada bat egin du atzera Espainiako estatuko herritarren bizi-itxaropenak. EINen behin-behineko datuek diotenez, 2020aren hasieran 83,2 urtekoa zen Euskadiko batez besteko bizi-itxaropena, laugarren handiena Espainiako Estatuko autonomia erkidegoen artean.

Profil aniztasuna

Zahartze demografikoaren aurretik, berezitasun oso zehatz bat nabarmendu da: geroz eta aniztasun handiagoa dute adinekoen profilek. Alde batetik, hau diote aurreikuspenek: 2060rako, bikoiztu egingo da 80 urtetik gorako herritarren kopurua, eta biztanleria osoaren % 15,6ra iritsiko da. Urte horretarako, adinez nagusi diren biztanleen ia erdiek 80 urte baino gehiago izango dituzte. Eta are nabarmenagoa izango da 100 urte edo gehiago dituztenen kopurua. «Gainzahartzea» deritzo fenomeno horri, zeinaren eragilea hau baita: adin handieneko kohorteen zahartzea, hilkortasun tasaren jaitsiera dela medio. Alabaina, kontuan izan behar da 2060rako murrizten hasiko dela 65 urtetik gorako biztanleriaren portzentajea: baby boomaren garaiko kohorteak jada iraganak izango dira, eta ondorengo belaunaldiek ez dute hainbeste jende izango. Beraz, oro har behera egingo du adineko populazioaren portzentajeak, baina nabarmen igoko da adinean oso aurrera egin dutenena. Zenbait erronka dakartza berekin joera horrek: areagotu egingo da mendekotasuna duten herritar oso zaharren kopurua; egokitzapenak egin beharko dira hiri antolamenduan eta ekipamenduetan, eta kultura aldaketak etorriko dira bizikidetzari, gizalegeari eta belaunaldien arteko harremanei dagokienez.

2 taula > EAEko 65 urteko eta gehiagoko eta 80 urteko eta gehiagoko biztanleriaren proiektzioak (2020-2070)

| Euskadi | 2020 | 2030 | 2040 | 2050 | 2055 | 2060 | 2065 | 2070 |
|----------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| Guztira | 2.220.504 | 2.204.507 | 2.192.442 | 2.158.780 | 2.126.998 | 2.088.120 | 2.048.672 | 2.014.649 |
| +65 | 499.432 | 604.971 | 707.962 | 752.386 | 728.392 | 694.564 | 664.704 | 647.235 |
| +80 | 157.950 | 195.916 | 245.706 | 302.274 | 326.024 | 343.262 | 331.393 | 304.816 |
| % +65 | 22,5 | 27,4 | 32,1 | 34,1 | 33,0 | 31,5 | 30,1 | 29,3 |
| % +80 | 7,1 | 8,9 | 11,1 | 13,7 | 14,8 | 15,6 | 15,0 | 13,8 |

Iturria: Eustat.

Zahartzearen beste ezaugarri bat zera dugu: gehiago dira adineko emakumeak gizonezkoak baino. Izan ere, handiagoa da gizonen hilkortasun tasa —adin-talde guztietan— emakumeena baino, eta altua emakumeen bizi-itxaropena. Emakumeen nagusitasuna adierazten du joera horrek gerorako ere, baina zenbait ikertzaileren ustez (Pérez-Díaz eta Abellán, 2018), gizonen biziraupenak gora egingo du etorkizunean, eta zenbait joera interesgarri azalduko dira: areagotu egingo da bikote bizitza hautatzen dutenen kopurua; aldatu egin daiteke familia tradizional edo arauaren arabera emakumeen alarguntasuna izatea egoera zibil ohikoena; areagotu egin daiteke bakarrik bizi diren gizonezko oso zaharren kopurua, eta berrantolatu egin beharko da adinean oso aurrera egin dutenen zainketa.

Bestalde, hezkuntza mailaren igoera dakarte eurekin adinekoen belaunaldi berriek. Bereziki aipagarria da unibertsitate ikasketak dituztenen portzentajea adin-tarte horietako jendearen artean. Izan ere, hainbeste igo da EAEko 65 urteko eta hortik gorako herritarren hezkuntza maila azken 10 urteotan, ezen 5 aldiz handiagoa baitzen 2020an unibertsitate ikasketadun adinekoen portzentajea (% 26,6) 2010ean baino (% 4,6).

65 bost urtetik gorako adinekoen lan egoerari dagokionez, erretiratuak edo pentsiodunak dira EAEko adin kohorte horretako biztanle gehienak, baina azken hamar urteotan beste profil batzuk azaldu dira, kontuan hartu beharreko zenbait aldaketa eta joera berriren adierazle. Lanean ari diren 65 urtetik gorakoen populazioa 1,8 puntu igo da hamar urtean. Ez da portzentaje esanguratsua, baina hau adierazten du: hirukoiztu egin dela aktibo dauden edo lanean ari diren adin talde horietako adinekoen kopurua. Aldiz, etxeko lanei dagokienez, nabarmen egin du behera adinekoen esku hartzeak eta gaiari ematen dioten lehentasunak: hamar urteren buruan, 20,9 puntutik 9,0ra jaitsi da. Hona joera horren zergatia: emakume gehiago jardun da lan merkatuan, eta eragina du horrek haien egoera ekonomikoan, pentsio sistemaren ordainsaria jasotzen dute eta.

Diru-sarrereren mailari dagokionez, berriz, gora egin du EAEko adinekoen ekonomiaren osasunak, eta behera diru-sarrera urriko profilen portzentajeak (600 euro baino gutxiago edo 601-900 euro bitarte irabazten dutenak): 2020an, hortik gora irabazten zuten adinekoen % 59,6k (901-1800 euro bitarte % 27,6k, 1.800 eurotik gora % 32k). Baina datu ekonomikoak esperantzagarriak izan arren (2008-2018 epean, EAEko 65 urtetik gorako % 1,44 —batez beste— zegoen pobrezia errealeko egoeran), badago zer egina oraindik ere, handia baita adinekoen zaurgarritasun maila.

Aniztasunaren arloan, berriz, datu interesgarriak dakartzkigu LGTB1 taldearen bilakaera eta egoerari buruzko azterketak. Datu estatistiko ofizialik ez dago, baina ikerketa batzuen arabera gora egin du azken urteotan talde horretako adinekoen portzentajeak (ELGA, 2019), beharbada gizarteak hobeto onartzen dituelako eta aurrera egin dutelako haien eskubideen aldeko gizarte mugimenduek. ELGAREN datuek diotenez (2019), estimazioak egiten dituzten 14 herrialdeetan % 2,7 da bere burua LGTB1tzat identifikatzen duen adinekoen batez besteko portzentajea. Talde horren egoerak eta beharrak aztertzeak aukera eman dute LGTB1en eskubideen aldeko mugimenduak, haien egoera soziala ikusgai jartzeko ahaleginak eta ikerketa zientifikoak ugaltzeak. Hona zahartzaroaren arloan aurrera egiteko identifikatu diren beharretako batzuk: arazoari ikusgaitasuna ematea, diskriminazioari aurre egitea eta iraupen luzeko zaintza sistemak erabiltzea.

1. «Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen» akronimoa da LGBT. Bi ezaugarri hauen arabera definitzen dira LGBT pertsonak: sexu orientazioa eta genero nortasuna.

Familia egitura berriak

Laugarren bidea (Gøsta Esping-Andersen, 1990) edo Ongizate estatuaren eredu mediterraneo (Capucha et al., 2003; Moreno, 2008) deritzen horien artean kokatzen da Euskadi. Ongizate eredu horietan, funtsezkoa da familia egituren konpentsazio lana (Moreno, 2002 cf; Culfaz, 2014), eta hedatutako zerbitzuen eredu antolatu eta baldintzatu ere egiten du, haien ezinbesteko parte bihurtzeraino. Honenbestez, familia egituretako aldaketek nabarmen eragiten diete ongizate zerbitzuei, eta zerbitzu horiek (publikoak, pribatuak eta komunitarioak) eguneratu eta egokitzeko premia bultzatzen.

Egoera zibilean ari dira izaten aldaketarik aipagarrienak adinekoen familia egituretan. Adinekoen erdiak baino gehixeago (% 54,4) ezkonduak dira edo beste norbaitekin bizi dira; ondoren, alargunak datoz (% 31,6). Txikiagoak dira ezkongabeen eta dibortziatuen portzentajeak (% 9,5 eta % 4,4, hurrenez hurren), baina hazten ari dira; jaisten, aldiz, ezkonduenak eta elkarrekin bizi direnenak. Joera horiek iradokitzen dutenez, gora egingo dute —pixkanaka— ezkongabeen eta dibortziatuen portzentajeak, eta behera alargunen eta ezkonduenak. Hori dela eta, bestelako bizitokiak eta haiek partekatze moduak sortuko dira, eta mendekotasuna duten adinekoek laguntzeko era berriak.

Familien osaerari dagokionez, berriz, geroz eta ugariagoak dira pertsona bakarreko familiak eta bikoteek osatzen dituztenak. Aldiz, geroz eta gutxiago dira zenbait belaunalditako kidez osatutako familiak, batez ere adinekoak seme-alaben etxean bizi direnak. Bizitzeko autonomiaren gorakada (bakarrik bizitzeko aukera), osasun-baldintzetan izan diren hobekuntzen, baldintza ekonomiko hobeen eta bizimodu independentea izateko nahiaren ondorioa da. Baina egoera horrek zaugarritasun handiagoa ere eragin diezaieke adinekorik ahulenei eta laguntza behar dutenei; izan ere, bakarrik bizi direnek arrisku handiagoa dute gizartetik isolatuta geratzeko edo arazo ekonomikoak jasateko.

Bizi diren lekuan jarraitu nahi dute adineko gehienek, eta han zahartu, baina zenbait faktorek dute eragina asmo horretan: inguruneak, irisgarritasunak, bizi proiektuak eta abarrek. Zenbait adinekorentzat, etxebizitza ez da bizilekua soilik: zahartzarorako proiektu bat da, berezko balioa duena. Geroz eta jarraitzaile gehiago ditu etxebizitza partekatuek, non zenbait lagunek baliabide jakin batzuk partekatzen baitituzte elkarrekin bizitzeko eta bizikidetzara eremu bat antolatzeko.

Etxebizitza partekatuen ereduetatik, *cohousinga* edo senior *cohousinga* da adinekoen gogokoenetako bat. Espainiako Pentsiodunen Batasun Demokratikoak 2015ean egindako inkesta baten arabera, *cohousingaren* berri bazuten 65 urtetik gorako hamar lagunetik seik. *Cohousingaren* arabera antolatutako etxebizitza partekatu batera aldatuko liratekeen galdetuta, inkestaturen


% 32,8k baietz erantzun zuen, baina aldaketa udalerrri berean izatekotan; % 8,6, berriz, noranahi aldatzeko prest azaldu ziren. Ohiko etxebizitzan edo bizileku eredu tradizionaletan nahi lukete zahartzen jarraitu % 46,9k, baina goraka ari da etxebizitza partekatuen fenomeno, zenbait adinekok zahartzaroan izan nahi duten bizimoduaren adierazgarri.

Familiarekiko hurbiltasuna eta harremana ere garrantzitsuak dira adinekoentzat. Euskadiko 60 urteko eta hortik gorako herritar gehienek hurbiltasun maila handia dute familiarekiko: % 85,4k diote familia badutela, bai eta harekiko harremanik ere. Alabaina, geroz eta ugariagoak dira ondorengoak beste herrialde batzuetara edo ehunka kilometrora bizitzera joan zaizkien adinekoak, zeinek ezin baitute jada bete tradizioaren arabera omen dagokien zaintzaile lana. 2010eko emaitzekin alderatuta,

6,8 puntu jaitsi da (% 33,7tik % 26,9ra) seme-alabaren bat etxetik kilometro bat baino gutxiagora daukatenen adinekoen portzentajea. Jaitsi egin da, halaber, seme-alabaren bat etxean bertan bizi dutenen adinekoen ehunekoa, % 31,3tik % 19,6ra. Seme-alabak 1-5 kilometrora, 5-25 kilometrora edo beste herrialderen batean bizi dituztenen portzentajeak, berriz, gora egin du, batez ere seme-alabarik hurbilena 100-500 kilometrora dutenena (% 2,4).

Bestalde, Euskadiko soziabilitate mailak oso altua izaten jarraitzen du: % 96 da gizarte konexioa, eta —gainera— gora egin du aurreko urtekoekin alderatuta. Soziabilitate horretan, familia da interakzioan jarraitutasun eta maiztasun handiena duen erakundea, adiskideekin eta partaidetza zein boluntariotzako bestelako interakzio mota batzuekin alderatuta.

Zer bilakaera izan duten EAEko 65 urteko eta gehiagoko pertsonen arteko bizikidetzak motek (1993-2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko adinekoen bizi baldintzei buruzko azterketa (1993-2020).

Osasunaren eta mendekotasunaren erronkak

Adinean aurrera egin ahala, funtsezkoa da osasunaren garrantzia, eta gainditu egin du alor mediko-sanitarioa, bizikidetzari eragiten dion arazo soziokulturala baita, lotura estua duena adinekoen autonomiarekin, mendekotasunarekin eta desgaitasunekin. COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz areagotu egin da osasunarekiko kezka, eta oihartzun handia ari da izaten hedabideetan, gizartean eta politikan.


Zalantzarik gabe, herritarren osasun maila da edozein estaturen ongizate adierazlerik onenetakoa. EAERI dagokionez, biztanleriaren osasun maila oro har oso ona dela diote zenbait adierazlek —esate baterako, osasun egoeraren pertzepzioak—, eta behera egin du osasun maila txarraren pertzepzioak 2010ean, 2014an eta 2020an. Bereziki aipagarria da osasun onaren eta oso onaren pertzepzio maila, zeina % 49,2tik % 70,1era igo baita 2014tik 2020ra.

Bizi-itzaropenak gora egitearekin batera, areagotu egin da mendekotasun egoerak pairatzen dituzten adinekoen kopurua. Gizarte zerbitzuen eskariari buruzko estatistikaren / Gizarte beharrei buruzko estatistikaren datuen arabera (GZEE-GBE), 2006an mendekotasun

erabatekoa edo larria zuten 75 urtetik gorakoen % 12,5ek (Barthel/Lawton ikerketa mistoa); 2018an, berriz, % 20,4 zen portzentajea.

Dementia da populazioaren zahartzeak egungo gizarteari ekarri dion erronketako beste bat. Dementziaren prebalentziari buruzko datuen arabera, Espainiako Estatuan % 1,83koa zela 2019an diote estimazioek; 2025erako, berriz, dementziak biztanleriaren % 2,13ri eragingo diola aurreikusten da. Gaitzaren prebalentzia eta intzidentzia proiektzioek adierazten dutenez, handitzen jarraituko du dementziadunen kopuruak, batez ere adinean aurrera doazen artean. Osasunaren Mundu Erakundeak dio mundu osoko osasun publikoarentzat erronka dela dementia, eta zenbait neurri behar direla dementziadunen eta haien zaintzaileen arreta eta haienzako zerbitzuak hobetzeko. Besteak beste, neurri hauek proposatzen ditu: dementziari buruz sentsibilizatzea gizartea, dementziari buruzko planak eta politikak garatzea eta aplikatzea, osasun zerbitzuak sendotzea, trebakuntza eta laguntza eskaintzea zaintzaileei eta ikerketa bultzatzea. Testuinguru bakoitzerako berariazkoak izan behar dute jarduketek, eta kulturalki esanguratsuak (OME eta Osasunaren Erakunde Panamerikarra, 2013).

65 urteko eta gehiagoko biztanleen euren osasun-egoerarekiko pertzepzioaren bilakaera (2010, 2014 eta 2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAeko 55 urtetik gorako herritarren bizi baldintzei buruzko azterketa (2020).

Eraldaketak iraupen luzeko zainketetan

Garrantzi handiko faktorea dira iraupen luzeko zainketak bizi luzetasunaren tratamendurako, gai horrekin lotura duten eragile guztiak (publikoak, pribatuak, familiarak eta sozialak) uztartzen eta baldintzatzen baititu. Izugarriko eragina izan dute zainketa horietan medikuntzaren aurrerapenak eta bizi-itxaropenaren handitzeak, eta erronka berriak ekarri dizkiote eskaintzen diren zerbitzuen gaineko ebaluazio egokia egiteko lanari. Oro har, iraupen luzeko zainketen areagotzea aurreikusten da, mendekotasun tasak gora egingo baitu². ELGAren aurreikuspenen arabera, bikoiztu egingo da mendekotasun tasa hurrengo 45 urteetan (ELGA, 2019).

2018an, 15 urteko edo hortik gorako 24.271 zaintzaile zituen Euskadik (GZEE-GBE), adin talde horietako biztanleriaren % 2,7. 2006an, % 4 ziren, hots, 35.402 lagun. Emakumeak dira zaintzaileen % 59,8, eta 55-64 urte bitarteko kohorteak du portzentajerik handiena (% 33,6). Datuek diotenez, herritar gazteenen edo gazte helduen portzentajea txikia da zainketen alorrean, 45-64 urte bitartekoekin alderatuta; azkena aipatutako adin tarte horretakoak dira zaintzaile gehienak. Urteek aurrera egin ahala, are txikiagoa bilakatu da zaintzaile gazteen portzentajea: 2006an, % 7,8 ziren 15-44 urte bitartekoak; 2018an, berriz, % 3,4. Gizonen eta emakumeen arteko arrakalak, bestalde, lehengo berean dirau.

Gogoan izatekoa da, halaber, etxeko zainketa zerbitzuen eskariak izan duen igoera (2006an, % 6,5; 2018an, % 8,4, GZEE-GBEaren datuen arabera), zeinarekin batera etorri baitira laguntza ekonomikoen eskariak eta etxeko zainketako profesionalen kopuruak izan duten hazkundera. Nabarmen igo da etxeko zainketa lanetarako familiariek kontratatzen dituzten profesionalen kopurua (2006an, % 25,3; 2018an, % 38,5); aitzitik, jaitsi egin da etxeko zainketa lanetarako administrazio publikoak kontratatzen dituen profesionalena (2006an, % 21,7; 2018an, berriz, % 10,3, GZEE-GBEaren datuen arabera).

Zalantzarik gabe, zainketa ereduen planteamendu berriak ari da sortzen zainketa lanetarako profil profesionalen eskariaren igoera. Zainketa premia geroz eta handiagoa ikusirik, hau dio ELGAK (2018): koordinazioa da zainketa

alorreko enpleguari dagokionez agenda politikoek duten erronka nagusia, hau da, osasun alorreko profesionalen, gizarte zerbitzuen, hirugarren sektorearen eta arazoarekiko eskumenak dituzten maila guztien arteko elkarlana. ELGAren arabera, funtsezkoak dira lehen arretako zerbitzuak osasun eta gizarte zerbitzuetan arreta txertatzeko, haiek elkarrekin uztartzeko eta arreta informala eskaintzeko. Txertatze hori gauzatzeko, lan berriak egiteko eta gaitasun berriak eskuratzeko gauza izan behar dute lehen arretako profesionalak; besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzen ikasteko. Arretaren koordinazioa hobetzeko aukera ematen du ikuspegi horrek, eta langileak laguntza eginkizun espezifikoetara esleitzen laguntzen du. Baina ikuspegi horretarako behar diren funtzio eta gaitasun berriak ez dira hartu behar lan profilen osagarri soil gisa: trebakuntza eta antolakuntza garapen egokiak eskaini behar dira lan karga ez handitzeko lehendik ere gainkarga jasaten duten osasun eta gizarte alorretako profesionali. Beraz, berrantolatu egin behar dira lan fluxuak, eta egokiro esleitu aurrekontuak laguntza arloko langileei trebakuntza osagarria eman eta haien ardurak denen artean banatzeko (Ilinca, Leichsenring & Rodrigues, 2018).

Zaintza lanei buruzko ikuspegi zabalago bat ari da hedatzen azken urteotan, planteamendu komunitarioak bultzatzen dituztenen eskutik. Zainketetarako lurraldeak eta hiriak aldarrikatzen dituzte planteamendu horiek, gizarte orekatuak, humanizatuak eta berdinzaleak eraikitzeko ardatz gisa (Sango eta del Barrio, 2021). Bestalde, ez diote uko egiten planteamenduok gizarte babeseko sistema arduratsu bat aldarrikatzeari, laguntza behar duten herritarrei lagunduko diena, baina ikuspegi zabalago batetik aztertzen dituzte zaintzaren gizarteratzea eta harekiko erantzukizunak, eta arreta berezia jartzen elkarlaguntzako eta lankidetzako mugimendu komunitarioetan (Solís, Buján eta Paredes Chauca, 2018). Zaintza sozialaren kontzeptu horren arabera, bere osotasunean hartu behar dira aintzat zainketak antolatzeko gizarteak dituzten moduak eta eragileak (familia, estatua, merkatua eta gizartea) (Comas, 2016).

2. Mendekotasun tasa: lan egiteko adinean dauden 100 herritarretatik (20-64 urte) erretiratzeko adina duten pertsonen kopurua (65+).

Zahartze aktibotik bizitza bete-betera

Zahartze prozesuaren aldaketak ez dagozkie soilik profil demografikoari eta osasun ereduari. Aitzitik, bestelako bizi ereduak eta ohiturak dituzte adineko belaunaldi berriek eguneroko bizimoduan, guztiak ere kontuan hartu beharrekoak gizarte berria aztertzeko orduan.

Geroz eta indar handiagoa hartuz joan da zahartze aktiboaren paradigma gerontologiari buruzko egungo eztabaida politiko eta sozialetan, Europan zein mundu osoan (Foster eta Walker, 2013), eta zahartze demografikoari aurre egiteko erantzun politiko esanguratsuena dela dio zenbaitek (Walker eta Maltby, 2012). Osasunaren Mundu Erakundeak garatu zuen lehenbizikoz zahartze aktiboaren kontzeptua, zeinak bereziki azpimarratzen baitzuen jardueraren eta osasunaren arteko lotura; gerora, gizartearen partaidetza eta adinekoen gaitasunen aitortza sustatzea ere aintzat hartzen ditu kontzeptuak (Daatland, 2005).

Denbora librearen erabilerari dagokionez, 1993-2018 epean denbora gehiago eman dute EAEko adinekoek kirola zein aisialdi aktiboko jarduerak egiten (19 minutu) eta etxeko jendea zaintzen (13 minutu); aldiz, askoz ere denbora gutxiago eman dute etxeko lanak egiten (38 minutu) (Denboraren Aurrekontua Inkesta, 2018). Aisialdiko jarduerarik ohikoenen artean, berriz, hau nabarmentzen da 60 urtetik gorakoen artean: asteburuetan bazkaltzera edo afaltzera irtetea. Halaber, areagotu egin dira azken urteotan lagunekin egiten diren jarduerak, batez ere paseatzera, bazkaltzera eta afaltzera irtetea.

Bestalde, gora egin du boluntarioritza lanetan aritzen diren 65 urteko eta hortik gorako herritarren kopuruak: 2010ean, % 9,6; 2020an, % 15,5 (BBI+55 Euskadi). Gizarte partaidetzari dagokionez, zera dugu ezaugarrietako bat, gai izan ber duela pertsona bakoitzaren esperientzia partikularra kontuan hartzeko,

hartara munduarekin lotura izan dezan bere burua horretarako gauza dela ikusten duen plataforma batetik (Prieto et al., 2015).

Lehentasunezko helburu soziopolitikoak dira bizitza osoan trebatzea eta ikastea, baliabide estrategikoa baita egungo gizarte modernoetako egitura sozial konplexuetan jarduteko. Bizitza osoko ikaskuntza baliabide ahaltsua da garapen pertsonalerako eta bizikidetzara soziala hobetzeko, eta hau du oinarri: testuinguru egokien sorrera hezkuntza prozesua bizitza osoko etapetan gauzatu dadin, era guztietako ikaskuntzak barne direla (formala, ez-formala eta informala), herritarrei gizartearen gogotsu parte hartzeko aukera ematen dien ezagutzaren eta gaitasunen garapena sustatuz (Fernández, Nebreda eta Da Cruz, 2018).

Nazioarteko politikek, berriz, zahartze aktiboko politika aldarrikatzen dute, herritarren partaidetza eta gizartearen esku hartzea uztartzen dituen (Foster eta Walker, 2015). Honenbestez, beste ikuspegi batetik ekiten zaio zahartze aktiboari buruzko eztabaidari: kontua ez da jada lehen egiten zena paradigma konplexuago eta integralago batera egokitzea edo moldatzea, baizik eta zehaztea zen den botere publikoen eginkizuna testuinguru berri horretan (Subirats, 2016). Izan ere, eskubidea dute adinekoek eskubide osoko herritarrak izateko eta gizartearen bete-betean esku hartzeko, subjektu sozialak direla aldarrikatzeko (del Barrio eta al.), ez arreta eta administrazio hartzaile hutsak. Horretarako, hiri eta komunitate bakoitzeko dinamika sozial eta politikoetan esku hartu behar dute adinekoek, zahartze aktiboaren inguruan eraiki diren hesiak gaindituz, prozesuaren zentzurik erradikal eta eraldatzailearena desitxuratu egiten baitute (Subirats, 2016 eta 2018).

Baina bizitza betearen ikuspegiarantz ere jo behar da, eta han txertatu zahartze aktiboa, aintzat hartuz bai adineko autonomoak, bai geroz eta laguntza eta zaintza

gehiago behar dituztenak. Paradigma berrira egiteko —zahartze aktiboaren kontzeptutik bizitza betekora aldatzeko—, ikuspegi berri bat behar da zahartzeak berekin zer dakarren aztertzeko. Bizitza betea izateko, hau da funtsezko baldintzetako bat: pertsona bakoitzaren oinarrizko beharra asetzea, norberaren gaitasun pertsonalak, baliabideak eta mugak kontuan hartuta (Helduak Adi!, 2022).

Zahartze aktiboaren ikuspegia aurrerapen bat da, desloturaren teoriak zahartzeaz duen ikuspegi negatiboarekin alderatuta. Teoria horrek bat egiten du zahartzeari buruzko estereotipo klasikoarekin, hots, adinekoen narriadura fisiko, kognitibo eta sozialak hondamena, mendekotasuna eta gizartetik bazterreraz geratzea dakarkiola. Erabateko aldaketa ekarri du ikuspegi berriak, narriadura ardatz zuen haren ordean adinekoen beharren asebetetzea eta zoriona lehenesten baititu. Zoriontsu izateko eta gogobetarik sentitzeko, aktibo jardun behar du pertsonak, ekarpenen bat egiten duela sentitu, zerbaitetarako balio duela.

Baina zentzuren bat izan behar du jarduerak, gogobetegarria eta konstruktiboa izan dadin. Ongizatearen funtsa ez datza ekintza kopuruan, baizik eta haiei ematen zaien zentzuan. Bizitza betearen ikuspegitik, oinarrizko beharrak asetzea izan behar du ekintzaren zentzuak. Jotzen da beharra dela ekintzaren sortzailea eta eragilea, eta ekintza dela beharrak asetzeko modua edo bidea.

Paradigma berrira egiteko —zahartze aktiboaren kontzeptutik bizitza betekora aldatzeko—, ikuspegi berri bat behar da zahartzeak berekin zer dakarren aztertzeko. Bizitza osoan garapen iraunkorra izatea, horra gizaki guztion asmoa, adinekoena eta adineko ez direnena. Adinekoen xedea eta helburu nagusia ez da fase aurreratu

batera iritsi, eta jada zaharturik, jarduera eta dinamismo sozialari eustea, baizik eta euren bizi garapen propioa osatzea, euren bizitzan zehar jorratu dituzten alderdiak lantzen jarraitzea, baita —zenbaitek— ordura arte ezagutzen ez zituzten beste batzuei ekitea ere.

Bizitzaz erabat gozatuz zahartzearen ikuspegitik begiratura, adinekoek bizi proiektu pertsonalizatuak prestatu eta garatu ahala gauzatzen da bizitza betea izateko asmoa, oinarrizko behar guztiak kontuan hartuta. Bizi proiektu horiek barne hartu behar dituzte hazkunde pertsonala —giza premien ikuspegi orokorra aintzat izanik— eta garapen soziala, adinekoen eta gizarte osoaren bizimodua hobetzeko ekimenekin bat eginez.

Ez dago estandar jakin bat bizitza betea lortu den neurtzeko: pertsona bakoitzak eman behar dio zentzua bere bizitzari, bere mugak eta askatasuna kontuan izanik. «Bizitza beteko zahartzaroa» lortzeko, ahalik eta gehiena garatu behar dira norberaren gaitasunak, eta oinarrizko behar pertsonalak eta sozialak ase, bakoitzaren egoera partikularra eta testuinguruaren baldintzak eta baliabideak kontuan izanik. Bizitzaren etapa guztietan —are gehiago zahartzarotan—, bateragarria da «bizitza betea» izateko xedea zahartzeak dakartzan mugekin.

Aldaketak lan egiteko eta erretiratzeko ereductan

Hona biztanleriaren zahartzeak azken hamarkadotan ekarri duen beste ondorio bat: langileen zahartze etengabea. Horrez gain, nabarmen gutxitu da biztanleria aktiboa, eta igo egin da erretiratuen bizi-itxaropena.

Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestako (BJA) datuek adierazten dutenez, igo egin dira azken urteotan Euskadiko adinekoen okupazio tasak. Hori dela eta, % 62,1etik (2014) % 72,2ra (2020) igo da 55-69 urte bitarteko landunen portzentajea, ZAlaren emaitzen arabera. Halaber, gora egin du 60-64 urte bitarteko landunen okupazio tasak: % 35,1 2014an, % 46,6 2020an. Azkenik, igo egin da lanaldi partziala hautatzen duten adinekoen kopurua, batez ere 70 urte eta hortik gora dutenen artean.

Bizi-itxaropena igotzeak berekin dakar erretiratu ondoren urte gehiago bizitzeko aukera. Eta horri langile kopuruaren jaitziera gehituz gero, bistakoak dira Euskadik epe laburrera izango dituen erroak. ELGAren azken datuen arabera (2017), hau da Espainiako Estatuko emakumeen eta gizonen bizi-itxaropena erretiratzeko adina gainditu ondoren: 26,2 eta 21,6 urte, hurrenez hurren.

Jakina, pentsio gastua areagotzea dakar berekin bizi-itxaropen luzeagoak. Arazo larria eragingo du hurrengo hiru hamarkadetarako aurreikusitako igoerak —baby boomaren belaunaldiko kohortetik jendetsuenak erretirora iristen direnean, alegia—, eta bitarteko hauen bidez egin beharko zaio aurre: elkarrizketa soziala, politika publikoen berrantolaketa eta erretiroaren inguruko errealtate materialak eta immaterialak berrikustea (Prospektiba Bulego Nazionala, 2021). Besteak beste, hau aldarrikatzen dute adituek: hobeto egokitzea adinekoen lan zikloa, eta egokiro aprobeztatzea adinekoenen ezagutzak eta gaitasunak. Hartara, heterogeneoa eta malgua izan daiteke lan zikloa bizi itxaropenaren igoerara moldatzeko prozesua, eta —pixkanaka— igo egin daiteke kohorte zaharrenetako jendeak lan merkatuan duen partaidetza tasa.

“Silver economy” deritzonaren arrakasta

Hona *silver economy* edo zilarrezko ekonomiaren definizioa: 50 urte edo gehiago dituztenen beharrak asetzeko jarduera ekonomiko guztien batura, barne direla bai zuzenean erosten edo kontratatzen diren produktuak eta zerbitzuak, bai horiek eragiten duten zeharkako jarduera ekonomikoa (Oxford Economics). Datu esanguratsua dugu 65 urte edo gehiago dituztenen EAEko familiei egozten zaien gastu osoa, zeinak 2,4 puntu egin baitu gora lau urteko epean (Eustat, Familien Gastuari buruzko Inkesta. 2020).

Zainketena da biztanleriaren zahartzearen inpaktu ekonomikorik handienetakoa izan duen sektoreetako bat. Mundu osoan egin du gora osasunarekin eta gizarte zainketekin lotutako enpleguen kopuruak: % 38 hazi da sektorea, batez beste, 2000tik 2017ra, (ELGA, 2019). Gipuzkoan, esate baterako, urtean % 9,2 igo da zaharren egoitzetako langileen kopurua 1999-2015 epean; eguneko zentroetako langileena, berriz, % 12,7, eta % 25,45 gizarte zerbitzuetako orientazio zentroetakoena. Iraupen luzeko zainketetan izango diren aldaketek, berriz, eragina izango dute sektore horretan eta, batez ere, lan merkatuko sisteman.

Kontuan izan beharreko beste datu esanguratsu bat: bidaiatzen duten adineko herritarren ugaltzea. Azken hiru hamarkadetan, % 25,4tik (1989) % 36,7ra (2019) igo da asteburuetan bidaiatzen duten 60 urteko eta gehiagoko herritarren portzentajea (Eustat, Bizi Baldintzei buruzko Inkesta). Beraz, senior turismoa deritzonari ere nabarmen eragingo diote aldaketa soziodemografikoak.

Dena dela, IKTen erabilerak izan duen hazkunde izugarria dugu daturik aipagarrienetako bat: 2014an, 55 urteko eta hortik gorako herritarren % 38,8k erabiltzen zituen teknologia horiek; 2020an, % 80,4k (BBI +55, 2020). Hala ere, oraindik ere handia da arrakala teknologikoaren zama jenderik zaharrenaren, emakumeen eta ikasketa maila txikien artean. Arrakala hori dela eta, zerbitzu publikoen eta komertzialen digitalizazioak arrisku sozial berriak ekar diezazkieke adinekoek, zeinei arreta berezia eskaini beharko baitzaie Euskadin diskriminazio eta bazterketa sozialeko egoerak saihesteko, oraingoak eta gerokoak

Ondorioak

Bizitzaren iraupena aipatzen du «bizi luzetasuna» terminoak, baina adiera asko ditu, eta lotura esanguratsuak gizartearen alderdi demografikoekin eta norbanakoon alderdi soziologikoekin. Bizi luzetasunaz mintzatzean, beraz, adinean aurrera gehien egin dutenen bizi kalitatea eta bizi itxaropenaren handitzeaz ari gara. Erronka ugari dakarzkio gure gizarteari eraldaketa soziodemografiko horiek, zenbait alorretan: ekonomia, zerbitzu soziosanitarioak, etxebizitza, ingurumena, zainketa ereduak...

Adineko jendearen eredu aniztasuna eta oso behar zein gabezia desberdinak aldi berean izatea (autonomia, ahulezia, trebakuntza, dementzia, bakardadea, laguntza ekonomikoa...), horra mendez aldatu berriak garen sasoi honen ezaugarrietako bat. Horregatik, bizi luzetasunaren erronkaren bidaide ditugu bizikidetzaren ereduaren jasangarritasuna eta zerbitzuen ekitatea. Zahartze prozesua gizartearen eragiten ari den aldaketa handiaz jabeturik, pertsonetikiko duen konpromisoa berretsi egiten du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, eta eskuetan duzun **Adinekoekiko Euskal Estrategia** bultzatzen hurrengo urteotarako.

Zahartzeari buruzko politiken azterketa

Bost hamarkada luze dira jada zahartzeari buruzko politikak martxan jarri zirela. Politika horietatik gehien-gehien helburua zera da, erreferentzia izatea zahartzearen alorreko plangintzarako, batez ere bi jarduera lerro hauetan: zahartze aktibo eta osasungarriaren paradigmatik, alde batetik, eta zaugarritasuna, zaintzak eta mendekotasuna, bestetik. Lerro horien noranzkoa aztertzea lagungarri zaigu beste estatu eta eskualde batzuetako erronkak ezagutzeko, bai eta zahartzearen gaineko Euskadiko politikak identifikatzeko ere.

Hona hemen zahartzearen inguruko zenbait estrategia politiko, azken bost urteotan Espainiako Estatuan eta nazioartean martxan jarri direnak berrikuntzaren, lorpenen eta ekarpenen aldetik duten balioagatik.

Euskadi

1990eko hamarkadaren hasieran jarri zen martxan estrategia Eusko Jaurlaritzaren agintepeko lurralde osoan, eta harrezkeroztik zenbait plangintza gerontologiko plazaratu dira, gai hauek ardatz zituztela: prebentzioa, adinekoa bere ohiko ingurunean egotea, autonomia eta tratu egokia, eta gobernantza eredu berri bat sortzea. Egun, beste zainketa eredu bat ari da jorratzen —**Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioa (2021-2030)**—, **Gizarte zaintzen politika eta zaintza eredu baterako trantsizioa** oinarri harturik, eta plazaratu berria da **Erronka demografikorako euskal estrategia (2030)**.

Azken bost urteotan Euskadiko lurraldeetan martxan jarritako estrategiei dagokienez, Arabako Foru Aldundia **Araba Helburu** estrategia ari da prestatzen. Hamazazpi helburu ditu Araba Helburuk, guztiak ere Garapen Jasangarriko Helburuekin bat datozenak (GJH); besteak beste, Zahartze Aktiboa eta Betea. Hona estrategia horren eraldatze palankak: 1) Bizitza aktiboa eta beteaz izaten laguntzea, 2) Diskriminazio positiboko ekimenak bultzatzea, 3) Zahartzen ari direnen autonomia eta independentzia sustatzea, 4) Adinekoen eskubideen alde egitea, 5) Zahartzeari buruzko zeharkako ikuspegia bultzatzea, 6) Boluntariotza sustatzea, 7) Zahartze beteaz gozatzeko jarduerak eta aukerak bultzatzea, eta 8) Zainketen eremua lantzea. Berrikitan, adineko askok jasaten duten nahi gabeko bakardadearen aurkako eraikuntza kolektiboko estrategia bat ere plazaratu du Arabak: **Araba a punto: Nahi gabeko bakardadearen kontra**.

Gipuzkoan, berriz, bi estrategia hauek dira azpimarratzekoak: **Gipuzkoako 2020/30 Agenda. Trantsizioko Gizarte Politikak (2021-2023 Ekintza Plana)**, zeinak beste lan eredu batzuetarako trantsizio

politika jasotzen baitu, eta **Adinberriren osasuntsu zahartzeko estrategia**. Lehenbizikoak trantsizio ikuspegi dinamiko bat du oinarri. Hiru jarduera lerro nagusi ditu, gizarte politikak honela banatzen dituztenak: «kontingentzia», «egonkortzea» eta «berrikuntza». Bigarrenari dagokionez, inpaktu handieneko sei eremuak nabarmentzen dira, bereziak eta egokiak guztiak ere. Honako hauek dira jarduera eremuak: i) Bizi luzetasunerako etxebizitza, ii) bizi luzetasunerako inguruak, iii) zahartze aktiboa, iv) zahartze osasuntsua, v) zaintza eta arreta, vi) balioaren zahartzea. Duela gutxi plazaratu da beste hau ere: **Gipuzkoa: bakardadeei aurre egiteko estrategia (2021)**.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren **Adinekoen plan estrategikoan (2013)** daude jasota ekimen horren mamia egituratzen duten baldintzak. Honetan datza strategiaren planteamendua: alde batera utzi behar da ikuspegi asistentzialista eta burokratiko, pertsonen sareak eta inguruneak ordezkatzeko joera duena; autonomia sustatu behar da; sinergiak sortu behar dira administrazio publikoaren, sektore sozialaren eta alor pribatuaren artean, eta etengabe bultzatu behar dira berrikuntza eta dibertsifikazioa.

EAEn, jarduera lerro hauekin dute lotura zahartzeari buruzko azken urteotako politika publikoek: iraupen luzeko arreta eta zainketak, bakardade egoerei aurre egiteko moduak, eta zahartze aktiboa.

Espainiako Estatua

Azken bost urteotan Espainiako Estatuan bultzatutako plangintza eta estrategien artean daude IMSERSOren **Adinekoen zahartze aktiboa eta haiekiko tratu egokia sustatzeko estrategia nazionala (2018-2021)**, **España 2050 estrategia**, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, 22. osagaia, hots, **Zaintzaren ekonomiarako eta inklusio politikak sendotzeko talka plana**.

Lehenbizikoaren jarduera lerroetako estrategien xedeak hauek dira: 1) Adineko langileen eskubideak hobetzea eta lan ibilbidea luzatzea; 2) Gizartean eta haren organo erabakitzaileetan parte hartzea; 3) Bizimodu osasungarria eta independentea sustatzea, bai eta bizitzeko ingurune egoki eta seguruak ere; 4) Diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna bultzatzea, eta arreta eskaintzea ahulezia eta zaurgarritasun egoera larrietan daudenei; eta 5) Adinekoen aurkako tratu txarrak eta abusuak saihestea. Hona estrategia horren proposamen berritzaileenetako bat: ministerio arteko batzorde tekniko bat proposatzen du, hasieratik bertatik, ebaluazioa eta jarraipena egiteko.

Bigarrenari dagokionez —**Estrategia España 2050**—, berriz, barne hartzen du Presta dezagun ongizate estatua gizarte zaharrago baterako erronka, lau urrats zehatz dituena: 1) Bizi luzetasunera egokitzea laneko zikloa; 2) Pentsio publikoetarako gastua areagotzea; 3) Osasun zerbitzuen sistema egokitzea; 4) Iraupen luzeko zainketak estaltzea.

Hona **Zaintzaren ekonomiarako eta inklusio politikak sendotzeko talka planaren** xedea: gizarte zerbitzu guztiak modernizatzea eta indartzea, batez ere iraupen luzeko zainketen eredia, berrikuntza eta Pertsona Ardatz duen Arreta eredu bat sustatuz. Eredu desinstituzionalizatu bateranzko trantsizioa lehenetsiz, gizarte zerbitzuak eta etxeko arreta garatuz.

Gainerako administrazioen proposamen berritzaileak aztertuta, Aragoi eta beste autonomia erkidego batzuetan sustatutakoak nabarmentzen dira. Aragoikoari dagokionez —**Adinekoak artatzeko eta babesteko estrategia**—, arretaren pertsonalizazioa, gizartearen dinamizazioa eta arretari laguntzeko sareak osatzea lehenesten du, jarduketan ikuspegi ekologikoa¹ oinarri duela.

Autonomia erkidegoetako estrategien artean dago **Andaluziako adinekoentzako lehen plan estrategiko integrala (2020-2023)**, non arreta berezia egiten baitzaie mendekotasunari eta zaurgarritasunari. Azkena aipatutako atal horretan, bereziki azpimarratzen ditu adineko herritar LGTBlak talde zaurgarri gisa. **Zahartze aktiborako Kanarietako strategiak (2017-2020)**, berriz, adinekoekin jarduteko prozedurak eta arauak eguneratzeko premia azpimarratzen du, bai eta azterketa gehiago eta ikerketa sakonagoak egitekoa ere. Aipatzeko modukoa da, halaber, Asturiasko Printzerriak berrikitan

3. Hauek ditu jarduera lerro nagusiak: 1) Adinekoak zaintzea eta haien eskubideak bermatzea; 2) Zahartze aktiboa sustatzea: mendekotasunaren prebentzioa eta autonomia pertsonalaren sustapena; 3) Mendekotasunaren arreta; 4) Gizartean parte hartzea eta laguntzea; 5) Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak; 6) Zentroak eta zerbitzuak ikuskatzea eta kalitatea sustatzea.
4. Lau ardatz estrategiko hauen inguruan garatzen da: 1) Bizitza osoan hiriaz gozatzeko eskubidea; 2) Hiri lagunkoia eta belaunaldien arteko bizikidetzak; 3) Zahartze aktiboa, hiriari ekarpenak egitea eta hartaz gozatzeko; eta 4) Ikerketa eta planifikazioa aldaketa demografikoa zuzentasunez egiteko.

martxan jarri duen **Adinekoentzako iraupen luzeko zainketa eredu aldatzeko estrategia**, egungo zaintza paradigma hobetzeko pixkanaka eraldatzeko konpromisoa barne hartzen duena.

Hiriei dagokienez, **Aldaketa demografikoari eta zahartzeari buruzko estrategia. Bizi ziklo guztietarako hiria (2018-2030)** ekimena jarri du martxan Bartzelonako hiriak. Besteak beste, balio eta printzipio hauek lehenesten ditu estrategia horrek: hurbiltasuna, hiriaz gozatzeko eskubidea eta genero justizia². Kasu horretan ere **garrantzi handia ematen zaio politika publikoak garatzeko ikerketari eta ezagutzaren sorrerari**.

Zenbait joera amankomun eta erronka erkide nabari dira Espainiako Estatuko planetan. Hona jarduera eremu horietako batzuk: eskubideak, diskriminazioa, gobernantzako partaidetza, bizitza osoko ikaskuntza, mendekotasunaren arreta eta prebentzioa, inguruneen lagunkotasuna, berrikuntza eta ikerketa. Genero ikuspegiaren txertatze maila eta kontzeptu jakin batzuk (belaunaldiartekotasuna, zainketa komunitarioak...) ere barne hartzen dituzte Estatuko estrategiek.

Nazioarteko eremua

Noiz hasi zen nazioartean biztanleriaren zahartzeari buruzko azterketa eta eztabaida? 1969 jo daiteke abiapuntutzat, urte hartan ekin baitzioten Nazio Batuek adinekoen eskubide eta ongizatearen aldeko jarduerari. Urte hartatik aurrera, zenbait ebazpen plazaratu zituen, eta Batzar Nagusiak erabaki hau hartu zuen: Mundu Batzar bat antolatzea, 1982an **Zahartzeari buruzko ekintza plan** bat argitara zezan. Plan hura izan zen zahartzearen gaineko politikak eta programak formulatzeko oinarriak ezarri zituen nazioarteko lehenbiziko tresna (Puyol et al., 2014). Harrezkero, hauek dira Europako politika publikoetako ekimen aipagarrienetako batzuk: **Adinekoen urte europarra (1993)**, **Zahartzeari buruzko Nazio Batuen Bigarren Mundu Batzarra (2002, MIPAA)** eta **Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren urte europarra (2012)**.

Gogoan izatekoa da, halaber, **Garapen jasangarriari buruzko 2030 Agenda** onartu zuela NBEk 2015ean. Garapen jasangarriko 17 helburu (GSH) jasotzen ditu Agendak, eta belaunaldien arteko elkartasuna aldarrikatzen haiek lortzeko funtsezko osagarri gisa. 2017an, berriz, **Gizarte eskubideen Europako zutabea** aldarrikatu zuen Europar Batasunak, eta han jaso zituen herrialdeak gizarte sendo, zuzen, inklusibo eta aukeraz betetako baterantz gidatzeko oinarriko 20 urratsak. 2021ean, berriz, **Zahartzeari buruzko Liburu Berdea. Belaunaldien arteko elkartasuna eta erantzukizuna sustatzen** aurkeztu zuen Europako Batzordeak, zahartzeak Europako gizarteari dakartzkion erronka eta aukeren gainean eztabaida politiko zabalari ekiteko. Gizarte babeseko gure sistemetarako soluzio jasangarrien eta belaunaldien arteko elkartasuna sendotzearen arteko oreka aurkitzeko beharra azpimarratzen du Liburuak. 2022an, bestalde, MIPAA/RIS, Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Planaren eta haren Eskualdeko Aplikazio Estrategiaren 20. urteurrena ospatu da, «Indarrak batuz, bizitzan zehar elkartasuna eta aukera berdintasuna lortzeko» (UNECE) goiburupean **Zahartzearen gaineko Ministerio arteko Konferentzia (2020)** baten bidez. Besteak beste, gai hauek jorratu dira: zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzea bizitzan zehar, iraupen luzeko zainketak eta zaintzaileen zein familien laguntza bermatzea, eta zahartzearen integrazioa adin

talde guztietako gizarte baterantz jotzeko.

OMEk, berriz, **Zahartze osasuntsuaren hamarkada (2021-2030)** aldarrikatu du, mundu osorako ekintza bateratu gisa. Hona nola definitzen duen OMEk zahartze osasuntsua: «Zahartzaroan ongizatea ahalbidetzen duen gaitasun funtzionalari eusteko eta hura sustatzeko prozesua. Hona zer den gaitasun funtzionala: behar diren ahalmenak izatea norberarentzat garrantzizkoa den hori egiteko eta norbera nahi duen bezalakoa izateko» (OME, 2021).

Oro har, **zahartze osasuntsuaren** kontzeptua dute ardatz mundu osoko estatuek bultzatutako estrategiek, *Zahartze osasuntsuaren hamarkada* agiriari jarraikiz. Zeharkakotasun handiagoko helburuak proposatzen ditu agiriak, guztiak ere **adinekoak ahalduzko politikei estuki lotuak**. Zahartze Osasuntsuaren Hamarkadako helburuen artean, hau nabarmentzen da: osasun sistemak adinekoen beharrekin uztartzea, eta ziurtatzea komunitateek adinekoen gaitasunak susta ditzaten eta pertsona ardatz duen arreta integratua eskain dezaten. Garrantzizkoak dira berrikuntza eta haren funtzio espezifikokoak mundu mailako testuinguru horretan. Hauek dira funtzioak: a) nazio bakoitzaren ahalmenak sendotzea, proba zientifikotan oinarritutako politikak bultzatzea, b) epe luzeko arreta sistema jasangarriak eta bidezkoak garatzea, eta c) hobetzea zahartze osasuntsuari buruzko neurketa, jarraipena eta ikerketa.

Europari dagokionez, **zahartzearen zeharkakotasuna** dute xede estatuen lerro estrategikoez, zeinen batez besteko garapen epea bost urtekoa baita. Kontzeptu hauek jasotzen dituzte lerroek: zahartze osasuntsua eta aktiboa, belaunaldiartekotasuna eta etengabeko ikaskuntza, bizi zikloaren nozioa eta haren faseak eta berezitasunak ere barne direla.

Europako herrialdeetatik, **Frantzia** nabarmentzen da, osasuna, prebentzioa eta autonomia mantentzea ardatz dituen plan estrategikoari esker (**Osasuntsu zahartzea: estrategia orokor bat autonomiaren galera prebenitzeko. 2020-2022**). Autoebaluazioa eta orientazio pertsonalizatua sustatzeko, autonomia galeraren prebentziorako baliabide zentro bat sortzea

proposatzen du Frantziako gobernuak. Bigarren neurri interesgarri bat —Frantziak 2022an martxan jarri duena— zera da, prebentziorako hitzorduak jartzea erretiro garairako, sasoi horretarako trantsizioaren hauskortasuna dela eta. Biurtekoa da estrategia, eta besteak beste hau du helburu: ikerkuntzaren eta berrikuntzaren bitartez, Europako herrialde aurreratuenen parera eramatea Frantzia prebentzioari dagokionez.

Erresuma Batua ere ari da lanean zahartze osasuntsuaren arloan, eta Osasunaren Mundu Erakundearen Zahartze Osasuntsuaren 2020-2030 Hamarkadako partaide egin da, herrialdeko erakundeek sinatu duten **Healthy Ageing Consensus Statement** agiriaren bidez. Nabarmentzekoa da zahartzearen kalitatea eta osasuna herritar bakoitzaren ahalmeneko ekonomikoaren eta klase sozialarekin zuzenean uztartzen dituen lan lerroa, desberdinkeriak gutxitzea xede duena, bai eta adinkeria eta diskriminazioari aurre egitea ere.

Europako iparraldeari edo Eskandinaviari dagokionez (Danimarka, Finlandia, Islandia, Norvegia eta Suedia), zenbait helburu interesgarri ageri dira Eskandinaviako Ministro Kontseiluaren Ikuspegi Plana (2030) agirian, zeinaren xedea hau baita: 2030erako eskualde hori izatea munduko jasangarriena eta integratuena. Erronka teknologikoari eta bakardadeari trinkoen ekiteko proposamen bakanetako bat dugu eskandinaviarrena, eta baditu lagunkoitasuna eta boluntariora sustatzeko estrategiak ere. Hona planaren helburu nagusiak: 1) Adinekoekiko lagunkoia diren hiriak eta gizarteak eraikitzea Eskandinavian. 2) Ikuspegi heterogeneoa eta sailen artekoa baliatzea, eta errendimenduaren adierazle nagusiak garatzea. 3) Bakardadeari eta isolamendu sozialari aurre egitea. 4) Zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzea, ongizatearen teknologiaren laguntzaz.

AEBen, berriz, ez daukate osasun sistema publiko eta unibertsalik; hori dela eta, nabarmena da hango estrategian lankidetzaren eta elkarlaguntzaren tradizioak duen pisua, bai eta enpresa pribatuaren lehentasuna ere (**Healthy Aging in Action, Advancing the national prevention strategy**). Estrategiaren xedea: ingurune komunitario osasuntsuak eta seguruak sortzea, bai eta prebentzio zerbitzu kliniko eta komunitarioak ere. Interesgarria da «zahartzearen biologia» ulertzeko

estatubatuarren azterketa lerroa, batez ere garunaren zahartzea eta horrek eragiten dituen gaixotasunak jorratzen baititu; besteak beste, alzheimerria, dementzia eta gaitz neurologikoak.

New Yorkeko eta Washingtoneko planek ere badituzte zenbait berezitasun, eta adineko zaurgarrien *segurtasuna areagotzea* dute estrategia nagusietako bat. Herrialde bakoitzaren bereizgarri kulturalak adierazten ditu planen arteko aldeak; esate baterako, segurtasuna oso garrantzitsua dela estatubatuarrentzat. Kanadako kasua ere aipatzeko modukoa da, estatuaren estrategiak (**National Seniors Strategy 2020**) berezitasun kulturalak ere jasotzen baititu; indigenenak, batez ere.

Laburbilduz, Espainiako Estatuko eta EAEko jardura lerroen antzekoak dira nazioartean azken urteotan martxan jarritako estrategia eta politika batzuk, eta desberdinak beste zenbait. Kidekoen artean, hor ditugu bakardadearen aurkako borroka, adinkeria, inguruneei lagunkoitasunaren ikuspegitik ekiteko beharra, autonomiaren eta prebentzioaren sustapena, zahartze osasuntsua, belaunaldien arteko elkartasuna, bizitza osoko ikaskuntza, iraupen luzeko zainketak eta etxebizitza.

Metodologia

Adinekoekiko Euskal Estrategia berriaren oinarriak prestatzeko erabilitako metodologiari dagokionez, berriz, Nazio Batuen Ekonomia Batzordeak egindako «*Guidelines for Mainstreaming Ageing*» gida (UNECE, 2021) du oinarri. Bost etapa hauek gomendatzen ditu gidak zahartzearen inguruko politikak garatu eta monitorizatzeko:

Zenbait eragileren artean eginiko azterketa eta kontraste lanaren barruan, kontsulta prozesu bat ere garatu zen, erdiegituratutako galdetegiak bidaliz — posta elektronikoz— EAEko, Espainiako Estatuko eta nazioarteko politikari, eragile eta aditu askori. Bestalde, sakoneko elkarrizketak egin ziren, eta foku taldeak eta lan saioak antolatu, non 50 lagunek baino gehiagok esku hartu baitzuten. Parte hartzaileen artean zegoen Euskadiko Adinekoen Batzordea (EAB). Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak sortua da batzorde hori, adinekoentzako politikak elkarlanaren bidez antolatzeko.

Kontsulta horien eta nazioartean bizi luzetasunaren joerez eta zahartzearen gaineko politikez egindako azterketen emaitza duzue **Adinekoekiko Euskal Estrategia**.

Zahartzea Integratzeko Esparru Estrategiko baten garapenerako bost etapa



Iturria: UNECE (2021): Guidelines for Mainstreaming Ageing.

Ikuspegia eta helburu orokorrak

Hau du oinarri **Adinekoekiko Euskal Strategiak**: zahartze prozesuari ekiteko eredu berri baten beharra. Adinekoek protagonismo aktiboa izan behar dute eredu horretan, non barne hartu behar baitira bai iraupen luzeko zainketak, bai bizitza betearen kontzeptua, betiere ikuspegi holistiko batetik begiratuta, aintzat hartuz zahartze prozesu osoan partaidetza, prebentzioa eta arreta hornikuntza integratua sustatzeko ekintzak.

5 jarduera lerro hedatuko ditu Strategiak, helburu hauek lortzeko:

1. Herritartasun aktiboa sustatzea, eskubideetan, parte-hartzean eta komunitate lagunkoietan oinarrituta;
2. Trantsizioak eta bizi proiektuaren garapena erraztea;
3. Aurrea hartzea, prebentzioa eta autonomiaren sustapena bultzatzea;
4. Gizarte zainketen politika bat eta iraupen luzeko zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea, eta
5. Ikerketan eta berrikuntzan oinarrituta ezagutza sortzea eta *silver economy*a sustatzea.

Printzipioak

Biztanleriaren zahartzeari ekiteko ikuspegi eraldatzaileak behar dira, adinekoen eskubideak aitortzen eta haiei zahartze ona bermatzen dietenak. Adinekoek zenbait ekarpen egiteko duten eskubidea sustatu behar dute ikuspegi horiek, haien duintasuna eta giza eskubideak aintzat hartzen dituen ingurune batean, non inolako diskriminaziorik ez baitu egon behar sexua, adina edo gaitasunak direla eta.

Adinekoekiko Euskal Estrategiaren printzipio gidariak nazioarteko erakunde esanguratsuenen ekarpenak dituzte oinarri; besteak beste, Nazio Batuen Erakundearenak eta Europar Batasunarenak, komunitate zientifikoarenak eta egindako kontsultetan esku hartu duten eragileenak.

Zeharka eragiten diote Estrategia osoari printzipio gidariak, haren garapenarekin zuzeneko lotura duten sei balio hauetan laburbilduak:

Berdintasuna

Aukera eta eskubide berdintasuna, eta diskriminaziorik eza sexua, adina edo beste zeinahi ezaugarri dela eta, bai alor publikoan bai pribatuan, adinekoek nahi duten bizimodua aurrera eramateko aukera bermatuz. Kontzeptu horren arabera, gizarteko egiturazko zenbait fenomenok eta adierazpenek ezarritako oztopoek ez dute eragotzi behar herritarrek ekonomian, politikan eta gizartean esku har dezaten. Honenbestez, gainerako herritarrei dagokien errespetu eta begirune bera zor zaie adinekoiei ere, eta bermatu egin behar da zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidearen unibertsaltasuna.

Aniztasuna

Aitortu egin behar da adinekoen populazioaren heterogeneotasuna: hiru belaunalditarainoko herritarrak hartzen ditu multzo horrek, eta bakoitzak bere esperientziak eta ibilbideak ditu (lanekoak, hezkuntzakoak, pertsonalak...), eta haien arabera balioak, gustuak, sinesmenak, lehentasunak eta bizitzeko estiloak. Laburbilduz, desberdinak dira, eta norberak bere nortasuna du, besterenezina. Adinean, osasunean, autonomian, kulturen, sexuan edo sexu joeran ikusten da aniztasun hori, zeinak berekin baitakar askotariko premiak, nahiak, esperientziak eta helburuak adierazten dituzten aukerak sustatu beharra.

Ekitatea

Adineko guztiek aukera berak eta bidezkoak izan ditzaten sustatu behar da, aintzat hartuta zahartze osasuntsua/aktiboa/betea/zentzuduna izateko faktore erabakigarriak eta laguntzaileak (posizio soziala eta ekonomikoa, adina, sexua, sorlekua edo bizilekua, gaitasunak...), betiere gogoan izanik desberdinak direla pertsonen beharrak eta denei eman behar zaiela bidezko tratua.

Autorrealizazioa

Pertsonak euren bizi proiektuak erabakiak hartzeko behar duten autodeterminazioa eta autonomia aitortu behar da, haien erabakitzeko gaitasunaz baliatu daitezkeen, eta adinekoen gaitasunak sendotu hezkuntzaren, enpleguaren, partaidetzaren, ohitura berrien eta kultura zein aisia baliabideen bitartez eta zahartze aktiboa eta betearen sustatuz, pertsonak euren kabuz lor ditzaten beren bizitzako helburuak eta xedeak.


Baterako sorkuntza

Baterako sorkuntzaren eta ekoizpenaren bidez, partaidetza sustatu behar da. Ahalduz, emantzipazioa, erabakimena, gobernantza eta inklusioa hartzen ditu barne, besteak beste, baterako sorkuntza kontzeptuak. Zera eskatzen du ikuspegi mota horrek: partaidetza aktiboa eta sortzailea, gainerako pertsonetako lankidetzaren politikak eta soluzioak jorratzeko. Horretarako, bizitzari zentzua ematen dion konpromisoa behar da, adinekoaren garapena eta nonbaiteko partaide izatearen sententzia dakarrena, ezagutzak eta trebetasunak partekatuz eta, hartara, erantzunkidetasuna eta elkartasuna bultzatuz.

Belaunaldien arteko elkartasuna

Elkartasuna sustatu behar da, pertsonen eta talde sozialen arteko harremanen gidari izan dadin bizi ziklo osoan, belaunaldien arteko kohesio sozialaren bidez bazterketa edo desberdinkeria eragiten duten egoerak gainditzearen. Erantzukizun individual eta kolektibotik abiatuta, konpromisoa eta ekintza bultzatu behar dira helburu komun bat lortzeko: adin talde guztietako herritarren ongizatea.

Esku hartzearen ardatzak

- 
1. ardatza. Herritar aktiboak
 2. ardatza. Trantsizioak eta bizi proiektuak
 3. ardatza. Autonomia eta zaurgarritasuna
 4. ardatza. Arreta et zaintza sustatzea
 5. ardatza. Ikerkunta eta berrikuntza

5 ardatz ditu Estrategia horren esku hartzeak, eta berriazko helburu bati dagokio haietako bakoitza. Halaber, **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren** zenbait konpromisok osatzen dituzte ardatz horiek, zeinak hainbat proiektu eragileren bidez hedatzen baitira.

| | I. ARDATZA Herritar aktiboak | 2. ARDATZA Trantsizioak eta bizi proiektuak | 3. ARDATZA Autonomia eta zaugarritasuna | 4. ARDATZA Arreta eta zaintza sustatzea | 5. ARDATZA Ikerkuntza eta berrikuntza |
|--|--|---|---|---|---|
| Euskadiko adinekoen batzordea | ● | ● | ● | | |
| Helduak Zabaltzen | ● | ● | | | |
| Euskadi Lagunkoia | ● | ● | ● | | |
| Altxor | | ● | ● | | |
| Bizitza Betea | ● | ● | | | |
| BetiON | | ● | ● | | |
| Gizarte zainketetako politikoak | | | ● | | |
| Zaintza lurraldea | | | | ● | ● |
| Nagusi Agenda | ● | ● | | ● | |
| Zahartzeari eta zainketei buruzko luzetarako azterketa | | | | | ● |
| Next - Care | | | | ● | ● |

I. ARDATZA

Herritar aktiboak

Hurrengo urteotarako zahartze politiken arloan, funtsezko desafioa dugu «herritar aktiboak» deritzona. Zenbait erataraz definitu izan dira herritar aktiboak —gehienetan, beste zerbaiten osagarri—, eta partaidetzazko ekintzak sartu izan dira kontzeptuaren barruan: politika, ekintza komunitarioa eta boluntariotza, besteak beste. Eskubideak eta aukera zein tratu berdintasuna ditu oinarri terminoaren sorrera ikuspegiak, zeinak prozesu politikoan eta gizarte bizitzako beste alor batzuetan esku hartzea aldarrikatzen baitu.

1970eko hamarkadan, nabarmen hedatu ziren gizarte mugimenduak; mobilizazio soziopolitiko handiko garaiak ziren haiek, non 20-40 urte inguru baitzituzten egungo adinekoek. Partaidetza sozialaren eta asoziazionismoaren sasoiak ziren. Gaur egun 65 urtetik gora duten herritarrak izan ziren mugimendu haien buru; orain, berriz, beste rol sozial batzuk eta eremu berriak aldarrikatzen dituzte, eskubide osoko herritarrak izateko.

Adinekoekiko Euskal Estrategiak ere helburu bera du; hots, **herritarren eskubideak, parte hartzea eta komunitate lagunkoiak sustatzea**. Horretarako, urrats hauek egin behar dira:

1. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidaritzatik, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
2. Adinekoentzako gizarte zentroyen eredia eraldatu eta asoziazionismoa sustatzea, bizitza beteko ikuspegi oinarri dela.
3. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz.
4. Komunitate eta ingurune lagunkoiak sustatzea bizi ziklo osoan.

1. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidaritzatik, bai eta zuzeneko esku hartzea ere

Adinekoentzako politiken diseinua, plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko baterako erabakiak hartu behar dira, adinekoen erakunde eta elkarten partaidetza sustatuz, bai eta eremu horietatik kanpo daudenena ere.

Zahartzen ari direnei hitza emango dien gobernantza eredu bat sortzea du xede estrategia horrek, eta adin-talde guztietako herritarrentzako gizarte bat eraikitzea. Gobernantzak berekin dakar administrazio publikoen eta gizarte zibilaren arteko elkarlana, sareak osatuz, politika publikoen eraginkortasuna, kalitatea eta norabide egokia bermatzeko.

Herritarrek, berriz, politika horietan eragin eta erabakien kontrola partekatzen dute, eta komunitateko protagonista bihurtzen dira. Partaidetzazko eremu instituzionaletan hartzen dira erabakiak eta, hartara, aitortu egiten zaizkie adinekoek eta taldeei herritar gisa dagozkien eskubideak. Baina badaude lankidetzarako eta laguntzak trukatzeko eremu ez-formalak ere, kontuan hartu beharreko ekimen berritzaileak sortzen dituztenak. Honenbestez, ahalduz indibidual eta kolektiboko estrategiak garatu behar dira adinekoak eskubide horiez baliabideak daitezela, ikuspegi zeharkakoa eta integratzailea erabiliz.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Helduak Zabaltzen
- Nagusi Agenda
- Euskadi Lagunkoia
- Bizitza Betea

2. Adinekoentzako gizarte zentroen eredu eraldatu eta asoziazionismoa sustatzea, bizitza beteko ikuspegia oinarri dela

Gizarte zentroak edo zahar-etxeak deritzenetan, zahartze aktibora iristeko garapen pertsonala eta soziala bultzatzen duten zenbait jardura egin ditzakete adinekoek; halaber, ikasi, parte hartu eta gizarte ekimen solidarioak bultzatzen dituzte, euren ezagutza eta esperientzia komunitatearen zerbitzura jarri.

Eraldaketa sozial handia eragin dute azken urteotako aldaketek (sozialak, ekonomikoak, osasun eta hezkuntza arlokoak), bai eta bizi-itxaropena eta bizi luzetasuna areagotu izanak ere. Eraldaketarekin batera, adinekoen profil eta errealitate berriak plazaratu dira, guztiak ere premia berrientzako eremu eta erantzun eske dihardutenak. Errealitate berria garatu ahala, zenbait zailtasun ari da izaten zahar-etxeen eredu tradizionala, baliabide sozial, kultural eta komunitario gehiago behar baitituzte udalek eta zenbait aurreiritzi baitaude gizartearen etxe horiekiko. Hori dela eta, jaitsi egin da zahar-etxeen erabilizailerik kopurua, eta orokorrak dira belaunaldi erreleborako arazoak.

Honenbestez, eraldatu egin behar dira leku horiek, adinekoak eurak aldaketaren lider aktibo direla. Bestalde, digitalizatu egin behar dira zahar-etxeak, eredu berritzaileak eta konektatuak sortu eta teknologiaren erabilera eraginkorra lagungarri izan dakien adinekoek. Konpromiso hau bereganatzen du gure Estrategiak: Euskadiko zahar-etxeak eraldatzeko lan egingo dugu, adinekoak aldaketaren gidari eta protagonista direla.

Horrekin batera, asoziazionismoa sustatuko dugu, bizitza betearen ikuspegia abiapuntu dugula, adinekoen bizitzari zentzua eta nonbaiteko partaide izatearen sententzia emateko. Izan ere, asoziazionismoak aktibatu eta hedatu egiten du adinekoen eta haien ingurunearen kapitala soziala. Tresna horretaz baliatuz, hau egin dezakete adinekoek: beren eskubideak aldarrikatu, ondasun publikoak kudeatu, eta interesak negoziatu eta antolatu. Onura sozialei dagokienez, elkarrekin parte hartzea

lagungarri da herritar aktiboak eta arduratsuak hezteko, adinekoak gizarteratzeko, inguru sozial bat izateko eta nortasun kolektibo bateko partaide egiteko...; laburbilduz, adinekoen autoestimua eta gogobetetze pertsonala hobetzeko.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Helduak Zabaltzen
- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Bizitza Betea

3. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz

Adinaren arabera diskriminazioa dugu XXI. mendeko erronka nagusietako bat. Osasunaren Mundu Erakundeak dioenez, funtsezkoa da adinagatik diskriminazioari aurre egitea mundu zuzenago bat eraikitzeko, herritar guztien duintasuna eta eskubideak errespetatu eta zaintzen dituen.

Adinkeria da aurreiritziaren eta diskriminazioaren modurik ohikoenetako eta gizartean onartuenetako bat. Adinkeria definizio bakarra ez badago ere, pertsonen adinaren arabera estereotipo, aurreiritzi eta jarrera diskriminatzaileen multzotzat hartu ohi da, gizartearen maila guztietan —mikro, meso eta makro— eragiten duena. Sentimenduen, sinesmenen edo jokabidearen asaldura bat da adinkeria, pertsona edo talde baten hautemandako adinarekiko sortzen dena, eta bizi ziklo osoan du eragina. COVID-19aren garaian, berriz, areagotu egin da diskriminazio mota hori.

Adinari buruzko estereotipo negatiboak barneratzeak eragin kaltegarria izan dezake pertsonen osasunean eta ongizatean, bai eta gizartean eta ekonomian ere. Bestalde, nabarmen oztopatzen du politika eraginkorrak antolatzea.

Adinkeria aurre egiteko eta adinaren arabera aurreiritziak murrizteko, belaunaldien arteko elkarlana, kohesioa eta lankidetzaren sustatzen du gure Estrategiak. Sendotu egin behar da belaunaldien eta belaunaldi arteko elkarleen arteko elkartasuna, zaharrenean eta gazteenen behar partikularrak aintzat hartuz, pertsona guztiei herritartasun bera aitortuz —eskubide eta betebeharrak berberen jabe diren aldetik—, bazterrera utzirik adin, belaunaldi, sexu eta gaitasunaren arabera aldeak. Horretarako, ziurtatu behar da komunitate bateko talde

4. Komunitate eta ingurune lagunkoiak sustatzea bizi ziklo osoan

guztiek ikuspegi bera izatea beren orainaz eta geroaz, eta adin talde guztietarako gizarteak eraiki, non herritarrek elkarrekin jarduten eta elkar osatzen eta indartzen baitute, gizarte inklusiboagoa, zuzenagoa eta bidezkoa bultzatzearen.

Balioa trukatzeko ekimen esanguratsuak martxan jartzea aldarrikatzen du gure Estrategiak, trebakuntza, esperientziak eta balioak trukatzea, berdinen arteko elkarrekikotasuna eta elkarlaguntza oinarri direla.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Nagusi Agenda
- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Euskadi Lagunkoia
- Helduak Zabaltzen
- Bizitza Betea

Honela definitu zituen komunitate lagunkoiak Osasunaren Mundu Erakundeak: «Ingurune inklusiboak eta irisgarriak, herritarren osasuna, partaidetza eta segurtasuna hobetzen dituztenak, zahartu ahala haien bizi kalitatea eta duintasuna bermatzearen». Komunitate lagunkoietan, ondo zahartzen laguntzen diete herritarrei politikek, zerbitzuek eta egiturek, eta horretarako gaitzen. Baina herritarrek parte hartzeko eremuak ere badira komunitate lagunkoiak, non gogotik saiatzen baitira adinekoak ongizatea sortzen, ingurune jakin bateko erabaki sozial eta politikoen protagonista eta gidari direla. Beraz, politiken onuradunak ez ezik funtsezko eragileak ere badira adinekoak, euren ezaugarri bereziak zehazten eta bultzatzen jarduten direnak.

Hiri eta komunitate lagunkoiak eraikitzea, horra biztanleriaren zahartzeari erantzuteko planteamendu politiko egokienetako bat; izan ere, funtsezkoak dira ingurune fisikoak eta sozialak jendeak osasuna, independentzia eta autonomia izan ditzan bizitza osoan.

Segur aski, gaur egun lagunkotasunaren aldeko mugimendua da nazioarteko topagune egokiena zahartze politika publiko berritzaileez jarduteko, aldaketa demografiko globaletara eta munduaren urbanizatzerara egokitzen saiatuz. Baina benetan lagunkoiak diren komunitateek ez dute belaunaldi bat bakarrik hartzen aintzat, baizik eta guztiak, adin-talde guztietako gizarte bat eraikitzeko bidean aurrera egiteko.

Gure Estrategiak ingurune lagunkoia aldarrikatzen du adin-talde guztietako jendearentzat, eta herrialde osoko udalerririk mugimendu horretara biltzen saiatzen da, bai eta sektore publiko, pribatu eta sozialeko zenbait erakunde eta eragilerekin elkarlanean jarduten ere bide horretan aurrera egiteko.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Euskadi Lagunkoia
- Helduak Zabaltzen
- Bizitza Betea

2. ARDATZA

Trantsizioak eta bizi proiektuak

Pertsonaren bizitzako etapekin lotu ohi da bizi trantsizioaren kontzeptua. Bi egonkortasun etaparen arteko aldaketa garai esanguratsua da trantsizioa, eta egokitze ahalegin handia eskatzen du. Trantsizio garaietan jarduerak ere aldatu behar dira, edo norberaren bizitzarekiko ikuspegia berraztertzeraz daramaten betekizun zein erantzukizun sozial berri batzuei ekin.

Zenbait bizi trantsizio gauzatu ohi dira bizi zikloan zehar, eta haietatik esanguratsuenetako batzuk zahartze prozesuan: besteak beste, erretiroa, gaixotasuna eta alarguntza (adinekoen ongizateari eragiten dioten galerak hirurak ere). Baina bizi trantsizio horiek ere aldatzen ari dira, faktore hauek direla medio: bizi-itzaropena luzatzea, familia egiturak aldatzea, genero rola, kronikotasuna... Hori dela eta, trantsizio mota berriak ari dira agertzen, eta bizi garai gerok eta indibidualizatuagoak.

Egungo bizi zikloaren eredian eta gizartean izaten ari diren aldaketek eragiten dituzte trantsizio berriak eta haiei ekiteko beharra; beraz, prozesu horietarako politikak antolatu behar dira, eta bizitza betearen ikuspegitik lagundu bizi proiektuari, hau da, informazioa, orientazioa, laguntza eta gaikuntza baliatuz, bai eta bizitza bete hori lortzen lagundu dezaketen teknologiak ere.

Horixe da, hain justu ere, Adinekoekiko Euskal Estrategiaren helburua: **trantsizioei eta bizi proiektuaren garapenari bidea erraztea**. Horretarako, urrats hauek egin behar dira:

1. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (norbanakoenak, bikoteenak eta kolektiboak)
2. Gaikuntza sustatzea, bizitza bete garatzeko
3. Zahartze prozesuari lotutako bizi trantsizioak egiten laguntzea adinekoek
4. Eguneroko bizimodurako teknologiak eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoek

1. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (norbanakoak, bikoteak eta kolektiboak)

Hona bizi proiektuaren definizioa: pertsona bakoitzaren bizitzari zentzua ematen dioten asmoak, helburuak, xedeak, jarduerak eta itxaropenak. Pertsonen balioekin uztartuta daude zer horiek guztiak, eta bizitza zentzuduna izateko gidari dira, etika, justizia eta giza eskubide unibertsalak oinarri direla. Beraz, honetan datza bizi proiektua: balio pertsonalekin lotutako xedeak, helburuak eta ekintzak zehaztean, bizitza haietarantz bideratzeko eta bizipoza sentitzeko.

Indibidualak dira bizi-proiektuak, eta funtsezkoak bizi-kalitateko. Norberaren bizitza kontrolatzen laguntzen du, eta ahalduntzea sustatzen.

Bizi proiektua gara dadin, berriz, eguneroko bizimodua esanguratsua eta kalitatekoa izatea erraztu behar dute politikak, baita laguntza behar dutenei ere. Horrez gain, tresnak eskaini behar dituzte bizitza betearekiko lotura dela eta motibazio berezia dakarten asmoak, xedeak eta erronkak identifikatzeko eta bizi trantsizioei laguntzeko.

Hona gure Estrategiaren helburua: erretiratzeko adinera hurbiltzen direnetik bizitzaren amaierara arte, informazioa, orientazioa eta laguntza izatea adinekoek bizi proiektuekin lotutako alorretan (erretiroa, bizikidetzak eta jarduerak aukera, bizitza osoko ikaskuntza, aisia, mendekotasun egoerak, testamentua eta bizi testamentua, herentziak eta abar), bizitza bete izan eta gizartean parte har dezaten. Horretarako, nola bizi nahi duten erabakitzen lagundu behar zaie, eta hartzen dituzten erabakiak pertsonalak, kontzienteak eta informatuak izan daitezen saiatu.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Altxor
- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Bizitza Betea
- Helduak Zabaltzen
- Euskadi Lagunkoia
- Nagusi Agenda
- BetiON

2. Gaikuntza sustatzea, bizitza bete garatzeko

«Bizitza beteko zahartzaroa» deritzona lortzeko, ahalik eta gehiena garatu behar dira norberaren gaitasunak, eta oinarriko behar pertsonalak eta sozialak ase, bakoitzaren egoera partikularra eta testuinguruaren baldintzak eta baliabideak kontuan izanik. Bizitza betearen kontzeptua —jarraitua, zeharkakoa eta etengabeko bilaketakoa— izan behar dute gidari eta inspirazio iturri politika publikoek, eta gainerako eragile sozialak orientatu (Helduak Adi!, 2022). Adinekoek dagokienez, bizitzaren azken etapa kontziente, proaktiboa eta konstruktiboa izatea dakar berekin kontzeptuak.

Bizi proiektuari eta asmoari loturik dago bizitza betearen garapena. Nahi den egoera edo helbururen bat lortzea izan daiteke asmo horren xedea. Nolanahi dela ere, pertsona bakoitzak bere patuaren eragile eta protagonista izan behar du, eta gizartearen eraldaketari laguntzen jarraitu, betiere eskubide eta gaitasun guztien jabe dela.

Bizitza bete horretara heltzeko, zenbait gaitasun eta trebetasun garatu behar dituzte adinekoek, zahartzeko prozesuan lagungarri izan dakizkien, gogoan izanik gerta daitezkeen egoeretara egokitu beharra dutela. Horregatik, bizitza osoko ikaskuntza programek eta trebetasunak irakastekoak barne hartu behar dituzte gaitze estrategiak, bizitza bete izaten lagundu diezaieten adinekoek.

Zenbait gaitasun irakasteko hezkuntza eredu baten arabera gara daiteke bizitza beterako asmoa, garapen pertsonala eta gizartearen eraldaketa xede duten trebakuntza saioak lehenetsiz. Helburua: adinekoek lehendik dituzten gaitasunak sustatzea, beren buruarekiko eta gizartearen garapenarekiko konpromisoa duten herritarrek hezten laguntzeko, betiere kontuan izanik pertsonalak direla bizi ibilbideak eta pertsonalak behar dutela izan erabakiek. Izan ere, ez dago bizitza beteaz gozatzeko modu bat bakarrik, baizik eta bizitza bete zehatzak eta mugatuak, guztiak ere ingurunearen baliabideen eta pertsonen gaitasunen eraginpean osatuak (Helduak Adi!, 2022).

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Bizitza Betea
- Euskadiko Adinekoen Batzordea
- Helduak Zabaltzen

3. Zahartze prozesuari lotutako bizi trantsizioak egiten laguntzea adinekoiei

Arauemaileak eta ez-arauemaileak izan daitezke bizi trantsizioak. Aurreikusi egin daitezke arauemaileak, arau sozial, kultural eta/edo instituzionalen arabera baitira. Lehen, ikaskuntzari, lanari eta erretiroari lotutako hiru fasetan egituratzen zen bizi zikloa: haurtzarora-gaztarora, helduarora eta zahartzarora. Zahartzarora iristean erretiroa hartzea da trantsizio arauemaile aipagarriena.

Jazoera kritiko ez-arauemaileak, berriz, uste gabeko gertakari indibidualak dira: gaixotasunak, hurbileko norbaiten heriotza, instituzionalizazioa, «habia hutsa» deritzona, aitona edo amona bihurtzea eta abar.

Gizarte modernoetan, aldatzen ari dira bizi trantsizio arauemaileak eta ez-arauemaileak; hori dela eta, bizi guripenak egokitu beharrean aurkitu dira herritarrak.

Lagundu egin behar zaie herritarrei trantsizio mota horiek egiten, bizitza betea eta zentzuduna izan dezaten; horregatik, gaitze ekimenak eta programak martxan jartzea proposatzen du gure estrategiak, trantsizioak erraztearren.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Bizitza Betea
- Altxor
- BetiON

4. Eguneroko bizimodurako teknologiak eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoiei

Digitalizazioaren hedapen azkarra du ezaugarrietako bat XXI. mendeak. Lagungarri izan daitezke teknologia digitalak trebetasun berriak ikasteko, harreman sozialak errazteko, bizimodu independentea eta autonomia sustatzeko, eta zahartzen ari diren populazioei osasun eta gizarte zerbitzuak hobeto emateko eta kudeatzeko. Geroz eta gehiago erabiltzen dira adinekoen artean, eta hobetu egiten dute haien bizi kalitatea, osasuna eta autonomia.

Erraztu egiten dute teknologia horiek adinekoek gizartean parte hartzea eta harekin lotura izatea, bai eta zainketa hornidura ere. Alabaina, adinekoek dute arriskurik handiena digitalizaziotik kanpo geratzeko eta haren bidez eskaintzen diren ondasunak eta zerbitzuak jasotzeko oztopoak izateko.

Teknologia digital berrien aurrerapen azkarrak etengabe aldatzen ditu gure gizarteak. Hori dela eta, eguneroko bizimoduko funtsezko osagai bihurtu da teknologia gehienontzat —baita adinekoentzat ere—; etengabe egokitu behar dugu teknologia digital berritara, eta haiek gure jarduera eta errutinetara bildu.

Bazterketa digitalak, berriz, gutxitu egiten ditu zahartze aktibo eta osasuntsurako aukerak, barne dela gizartean eta ekonomian parte hartzeko. Hona digitalizazioaren erronketako batzuk: zahartzen ari direnak trebatzea, teknologia digitalak eskura jarriz eta haien gaitasun digitalak hobetuz. Zenbait proiekturen bidez adinekoek teknologia horiek ezagutzea eta eguneroko bizimoduan erabiltzea aldarrikatzen du gure estrategiak.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- BetiON
- Altxor
- Helduak Zabaltzen
- Bizitza Betea

3. ARDATZA

Autonomia eta hauskortasuna

Erabakiak hartzeko pertsonak duten gaitasuna da autonomia. Bizi proiektu bat izateko berme erreala ematen die autonomiak pertsonari, dituzten gaitasunak dituztela ere, haien banakotasuna eta nortasuna oinarri harturik eta ahal den kontrol neurria ezarriz. Geroz eta balio sozial estimatuagoa da autonomia, eta sustatu egiten dute administrazio publikoek, herritar informatuak, trebatuak, autonomoak eta bizi proiektuaren funtsezko arloez erabakiak hartzeko gai direnak sortzearen. Are garrantzitsuagoa da balio hori hauskortasun edo mendekotasun egoera jasaten dutenentzat, ezinbestekoa baitute laguntza bizi proiektu esanguratsu bat eraikitzeko eta proiektu hori garatzen eta betetzen lagunduko duen sare bat koordinatzeko.

Egoera dinamikoa da hauskortasuna, galera fisikoak, psikologikoak eta sozialak izaten diren pertsonari eragiten diena. Funtsezkoa da hauskortasunari ekitea autonomiari eusteko, desgaitasunaren eta/edo mendekotasunaren aurreko egoera bat baita, garaiz detektatuz gero prebenitu daitekeena, baita menderatu ere zenbait kasutan. Beraz, ezinbestekoa da arazoari garaiz ekitea eta prebentzioa adinekoen autonomia eta independentzia ziurtatzeko. Horretarako, funtsezkoa da bakardadeari aurre egitea, telelaguntzaz baliatzea eta autozainketa sustatzea.

Ardatz horren xedea: **arazoari aurrea hartzea, prebentzioa, eta autonomia sustatzea**, konpromiso hauei jarraikiz. Konpromisoak:

1. Bakardadeari aurre egiteko ekintzak sustatzea.
2. Adinekoa bere ohiko ingurunean egon dadin bultzatzea, prebentzio eta detekzio zerbitzuak garatuz.
3. Autozainketa eta ongizate teknologiak sustatzea, arreta etxean bertan emateko.
4. Autonomiaren galera prebenitzea.

1. Bakardadeari aurre egiteko ekintzak sustatzea

Hauskortasun sozialerako arrisku faktore bat da bakardadea —bai etxekoa (bakarrik bizitzea), bai afektiboa (bakarrik sentitzea), bai harremanekoa (harremanik ez izatea)—, baina gogoan izan behar dugu geroz eta gehiago direla bakarrik bizi direnak eta badituela balio horrek positibo batzuk ere; besteak beste, autonomia eta independentea izateko gaitasun pertsonala.

Bizikidetzaren ereduak eraberritzen ari dira gizarte modernoetan; hori dela eta, asko dira —geroz eta gehiago— bizi ziklo osoan bakarrik bizi direnak. Bakardade afektibo eta harremanekoaren fenomenoak ez da adineko jendearen artean bakarrik gertatzen, baina maizago atzematen da adin-tarte horietan beste batzuetan baino, zenbait arrazoi direla medio: harreman sozialik eta/edo bikotekiderik gabe geratzea, independentzia mugatzen duten gaixotasunak izatea, erretiroa hartzea eta/edo jarduera esanguratsu gutxiago egitea, eta abar. Egoera horiei prekaritatea gehituz gero (irigarritasunerako oztupoak ingurunean, diru-sarrerak urriak...), hauskortasuna eta zaugarritasuna jasateko arriskua sor daiteke, baita bazterketa soziala pairatzekoa ere.

Honenbestez, hau proposatzen du gure estrategiak: EAEko administrazio publikoen arteko lankidetzaren adinekoen bakardadearen prebentzioarako eta arreta integralerako, funtsezko faktorea baita zahartze osasuntsua eta betea izateko. Proposatzen du, halaber, bakardadeari eta haren inguruko esperientziei berariaz erreparatzea Eusko Jaurlaritzak garatutako programek eta zerbitzuek, kontuan harturik zer baliabide duden eta nola lagundu dezakeen haietako bakoitzak bakardadeari ekiten, dagokion mailan (udalerrira, lurralde historikoa edo autonomia erkidegoa).

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Helduak Zabalitzen
- Euskaldi Lagunkoia
- BetiON

2. Adinekoa bere ohiko ingurunean egon dadin bultzatzea, prebentzio eta detekzio zerbitzuak garatuz

1990eko hamarkadatik ari da eragiten zahartzearen alorreko politiketan «Etxean zahartzea» kontzeptua (Ageing in place), eta oso hedatua dago gaur egun, adinekoen lehentasunekin bat baitator.

Bestalde, telelaguntza da gizarte baliabiderik eraginkorrenetako bat ohiko inguruneko prebentzioaren eta mantentzearen alorrean. Telelaguntzari esker, laguntza zerbitzu iraunkorra dute erabiltzaileek etxean bertan, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan, gizarte larrialdi edo premiei aurre egiteko berariazko prestakuntza jaso duten profesionalen ardurapean. Batzuetan, profesionalak arduratzen dira laguntzaz; beste batzuetan, berriz, beste baliabide batzuk erabiltzen dira.

Hautentzat da telelaguntza zerbitzua: bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoentzat, eta gizarte zerbitzuek onartutako mendekotasun edo zaugarritasun egoera pairatzen duten 65 urtetik gorakoentzat. Desgaitasun intelektuala, fisikoa edo sentsoriala jasaten eta onartutako mendekotasuna (edozein mailatakoa) dutenentzat ere bada, bai eta diagnostikatutako gaixotasun mentalen bat dutenentzat eta onartutako mendekotasuna edo gizarte bazterketako arriskua pairatzen dutenentzat ere.

Gaur egun, zerbitzu sendoa da, eta etengabeko hobekuntza du xede, zenbait lerro estrategikoren bidez; besteak beste, lankidetzaren soziosanitarioaren jarraitutasuna, pertsona ardatz duen eredu batean oinarriturik eta gizarte zein osasun zerbitzuak egokiro koordinatuz, baina lehen mailako arretako gizarte zerbitzuekiko koordinazioa ahaztu gabe (edo lehenetsiz, zenbait kasutan). Halaber, estaldura handiagoa ematen die desgaituei eta gaixotasun mentalen bat dutenei, eta haien egoera normalizatzen saiatzen da. Zalantzarik gabe, adinekoak dira zerbitzuaren hartzaile nagusiak. Azkenik, arreta pertsonalizatutako eredu bat garatu du, zenbait egoeratan jarduera prebentiboa eskaintzeko: bakardadea, erorketak, segurtasuna eta ingurune soziofamiliarrentzako laguntza.

Aspalditik erabiltzen da zerbitzu hori Euskadin, eta orain zabaldu egin da, prediktiboagoa izan dadin, arrisku egoerak detekta ditzan, arreta profesionala eman diezaien bakarrik bizi direnei eta euren etxean bizitzen jarrai ahal dezaten hala nahi dutenek. Gainera, garatutako zaintza politika guztiek egiten dute bat helburu horrekin, oso kontuan hartuz familia zaintzaileei eman beharreko laguntza gai hauei buruzko informazio pertsonalizatuaren bitartez: baliabideak, zerbitzuak eta programak, zainketei buruzko aholkuak, zaintzaileen autozainketa eta laguntza psikologikoa.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zainketa sozialen politika
- BetiON

3. Autozainketa eta ongizate teknologiak sustatzea, arreta etxean bertan emateko

Hona zer den autozainketa, OMEren arabera: pertsonen, familien eta komunitateen gaitasuna osasuna sustatzeko eta mantentzeko, eta gaixotasunak eta desgaitasunak prebenitu eta haiei aurre egiteko. Funtsezko elementua da autozainketa autonomia bultzatu eta hauskortasuna prebenitzeko.

Helburua da autozainketa indibiduala ez ezik komunitarioa ere bultzatzea, elkarrekikotasuna eta interdependentzia oinarri dituen zaintza partekatuaren kultura hedatzea.

Autozainketaren osagarri, sustatzen dira ongizate teknologiak, arreta etxean bertan ematen laguntzen dutenak. Teknologia digital berrien aurrerapen azkarrak etengabe aldatzen ditu gure gizarteak. Hori dela eta, eguneroko bizimoduko funtsezko osagai bihurtu da teknologia gehienontzat —baita adinekoentzat ere—; etengabe egokitu behar dugu teknologia digital berritara, eta gure eguneroko jarduera eta errutinetara bildu.

Zenbait ikerketak frogatu dutenez, tresna egokiak dira adinekoen isolamendu sozialari aurre egiteko, haien partaidetza soziala areagotzeko, jarduera fisikoa sustatzeko, bizimodu autonomo eta independenteari laguntzeko eta osasuna zein iraupen luzeko zainketak hobetzeko.

Norberaren etxean zahartzeko, funtsezkoak dira ongizatea sustatzen duten teknologiak; horretarako, baina, behar dituztenen eskura egon behar dute. Adinekoen eguneroko bizimodua errazten duten etxerako produktu eta teknologia lagungarri berriak sortzea aldarrikatzen du gure estrategiak.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Altxor
- BetiON
- Zainketa sozialen politika

4. Autonomiaren galera prebenitzea

Autonomiaren galerari eta hauskortasun egoerei aurre hartzea, horra zahartze politiken lehentasun nagusia. Bizi osorako autonomia bultzatzea dute oinarri politika horiek, eta herritarrak ere arduratzea prebentzioaz.

Gaitasun funtzionala (fisikoa, kognitiboa, soziala, psikoafektiboa) hobetzen duten programen bidez sustatu behar da autonomia pertsonala, bizimodu independentea izatea eragotzen duten oztopoak ezabatuz. Ebidentzia zientifiko ugari daude bizimoduak, faktore sozial zein psikologikoen eta informazioa eskuragarri izateak osasunean duten eraginaz. Neurri handi batean, faktore horien arabera aurreikus daiteke zahartzaroko bizi kalitatearen maila eta adinekoen autonomiarena. Beraz, lehentasunezko eginkizuna da aurrea hartzea mendekotasunari eta gaixotasun kronikoei loturik zahartzaroan ager daitezkeen arazoei. Bestalde, aukera berdintasunak eta zuzentasunak zera eskatzen du, adinekoen informazioa, laguntza eta orientazioa ematea, euren etorkizunerako ohitura eta jokabide egokiak sustatzeko.

Zahartze prozesuan, izan ere, nahitaez ikasi behar da zahartzen, galerak kudeatzen, arriskuak saihesten eta haiei aurrea hartzen, egonkortasun emozionalari eusten..., denborak aurrera egin ahala hain preziatua bihurtzen den autonomia pertsonala mantentzeko. Adinean oso aurrera egindakoan etxean jarraitu ahal izatea honen mende dago, hein handi batean: beharrak eta baliabideak aurrez planifikatzeko aukera, haiei behar bezala erantzuteko.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zainketa sozialen politika
- BetiON
- Altxor
- Euskadi Lagunkoia
- Helduak Zabaltzen
- Bizitza Betea

4. ARDATZA

Arreta eta zainketak

Urteak dira jada zenbaitek zera iradokitzen duela, iraupen luzeko zainketen eredia aldatu egin behar dela. Izan ere, jada atzematen hasia zen zainketen alorreko krisia, gerora pandemiak larriagotu zuena. Familia egituren aldaketak, adinekoen nahiak eta arreta ikuspegi berriak direla medio, beste era bateko zainketa politikak behar dira, eta hauei eman lehentasuna: pertsonalizazioari, hurbileko zainketei eta komunitarioei, eta pertsona ardatz duen arretari. Eredu ekosistemiko bat behar da, lurraldekakoa, oinarri komunitarioa duena, prozesuaren protagonista diren erabiltzaile, familia zaintzaile eta profesionalak aukera izan dezaten erantzun hobeak eraikitzeko beharrei aurre egiteko, zeinak geroz eta handiagoak baitira. Horretarako, funtsezkoa da desinstituzionalizaziorantz jotzea, zainketak etxean bertan jasotzeko aukera eskainiz eta zaharren egoitzak ingurune gozoagoak bihurtuz, besteak beste.

EAEko 2021eko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioko gomendioen artean, zera nabarmentzen da, gehiago inbertitu behar dela adinekoen arretan, hau guztia lortzeko: oreka berri bat erakundeen eta familien zaintzaren artean, erakundeei pisu handiagoa emanez; arreta piramidean alderantzikatzea —euren etxean bizitzen jarraitzen duten adinekoen lehen eta bigarren mailako arreta komunitarioa sendotuz—, eta zahar-etxeen, zentro soziosanitarioen eta adinekoak ostatzeko zerbitzuen ereduak eraldatzea —dibertsifikatuz, arretaren intentsitatea adinekoen beharren arabera mailakatuz,

egoitza horiek etxe baten antzera antolatuz, egoitzen eta arreta unitateen tamaina txikiagotuz, eta pertsona ardatz duen arretari eta egoitzen harremanetarako gune izaerari ertsiz, baita osasun aldetik zama handia dutenetan ere—.

Esku hartzearen ardatz horren xedea zera da, **gizarte zainketen politika bat eta iraupen luzeko zainketa eredu berri baterako trantsizioa** sustatzea, konpromiso hauei jarraikiz:

1. **Kultura hau sustatzea gizartean: bizitza osoko zainketen beharra eta gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna, hots, arduren demokratizazioa.**
2. **Etxeko arreta eta hurbileko ingurune komunitariokoa areagotzea.**
3. **Iraupen luzeko egoitzetako zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea.**
4. **Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat bultzatzea.**

1. Kultura hau sustatzea gizartean: bizitza osoko zainketen beharra eta gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna, hots, arduren demokratizazioa

Biztanleriaren zahartzea dela eta, eztabaida sakonak eragin ditu zaintzaren erantzukizunak, eragin handia baitu arazoak bai gizarte politiketan, bai adinekoen eguneroko bizimoduan. Bereztasun hau dute zainketek: mugaz gaindiko eremu batean daude —familiaren, estatuaren, merkatuaren eta gizarte zibilaren artean—, baina, zalantzarik gabe, familiek hartzen dute beren gain zaintzaren zamarik handiena.

Emakumeei esleitu izan zaie familia inguruneke zainketen ardura; batzuetan, baita inguru horretatik kanpo ere. Baina azken urteotako aldaketak tarteko direla, demokratizatu egin behar dira zainketa lanak, justizia soziala eta genero berdintasuna oinarri direla, baina zainketen oreka berri bat ere aldarrikatuz aldi berean: areagotu egin behar dira erakunde publikoen ardura eta sektoreen arteko lankidetzak, bai eta lehen eta bigarren mailako zaintza komunitarioarena ere.

Proposatzen dugu, beraz, gutxitzea familiek zainketa lanetan —ordainik gabeetan— duten pisua, eta handitzea erakunde publikoen gidaritza —administrazio publikoen bidez— eta gizonen esku hartzea, zaintza lanetan ez ezik etxeko lan guztietan.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zainketa sozialen politika
- Next Care

2. Etxeko arreta eta hurbileko ingurune komunitariokoa areagotzea

Gaiari buruz eginiko inkesta guztietan, norberaren etxean eta ohiko ingurunean jarraitzeko gogoia adierazten dute adinekoek, baita laguntza behar dutenek ere. Hori dela eta, herritarrak euren etxean zahartzeko zenbait neurri ari dira bultzatzen politika publikoak. Baina jendea etxean biziko bada, bermatu egin behar da laguntzaren kalitatea, eta sendotu etxeko arreta eta ingurune hurbilekoa.

Hona zer adierazten duen «zainketen tokian tokiko ekosistema» kontzeptuak: zenbait zerbitzu mota (osasuna, zerbitzu sozialak eta soziosanitarioak) eta bestelako jarduera batzuk elkarrekin lotzeko ahalegina —berriazkoa eta planifikatua—, zenbait eragile bultzatzen dutena (administrazio publikoak, hirugarren sektoreko enpresak, komunitateak eta familiak, teknologia zentroak, unibertsitateak eta ezagutza zentroak), zenbait profiletako erabiltzaileei (hauskorak eta mendekotasundunak) zaintza eskaintzeko, sektoreen arteko lankidetzak, erakunde soziosanitarioen koordinazioa eta erakunde publikoen gidaritza oinarri direla (Zaintza Ekosistema Scaling HUB, 2022).

«Zainketa continuumaren» inguruan egituratzen dira tokian tokiko zainketa ekosistemak. Pertsonalizazio estrategiaren ardatz den zainketa ibilbideen diseinua du oinarri continuum horrek. «Tokian tokiko» terminoak, berriz, zera iradokitzen digu, hurbiltasun printzipioan oinarritzen direla arreta eta zaintza. Maila askotariko gobernantza estrategia bat eskatzen du hurbiltasunak —udaletako, aldundietako eta autonomia-erkidegoko erakundeak lotzen dituen—, eta tokiko eragileen parte-hartze aktiboa, familia eta komunitatearena ere barne dela.

Tokian tokiko zainketa ekosistemek berriaz sustatzen dute zainketen desinstituzionalizazioa eta gizartearen zaintza sistemaren indartzea, herritar hauskor eta mendekotasundunei etxean bertan arreta, zaintza eta laguntzarako produktu eta zerbitzu integratuak eskaintzeko.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zaintza Lurraldea
- Zainketa sozialen politika
- Next Care

3. Egoitzetan iraupen luzeko zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea

Zainketen antolakuntza sozialaren eredu berri baterantz jotzea proposatzen da, sektore publikoa gidari dela, erakunde publikoen zaintza lana sendotu eta familiarena eraldatzeko, bai eta arreta eredu komunitarioa eta lau sektoreen arteko lankidetzak sustatzeko ere, zainketa premiak asetzeko ekinean. Administrazio publikoak zainketa lanez gehiago arduratzea eta familien zama gutxitzea da helburua, zainketa lanak beste era batera banatzea; lan hori aintzatestea, balioestea eta duintzea, eta horretan dihardutenei ahotsa ematea.

Eredu aldaketa horretan sartzen da zainketen desinstituzionalizazioa ere, zeinak adinekoak zaintzeko egoitzetako eredu tradizionala eraldatzea eta arretaren ardatz pertsonak bihurtzea aldarrikatzen baitu. Aldaketa hori gauzatzeko, eredua berraztertu egin behar da, eta zahar etxeetako arreta sendotu eta hobetu, bizikidetzak unitate txikiagoak antolatuz, non giro «gozoagoa» eta arreta pertsonalizatua eskainiko baita.

Honenbestez, gogoeta egin behar da adinekoek behar dituzten egoitzei buruz, zahartze gogobetegarria eta beteak izan dezaten, *Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa*, hobetzeko proposamenak adostuz.

Pertsonak ardatz dituen ikuspegi baterantz jotzea du xede estrategia horrek, non zaintza behar duten adinekoen bizi kalitateari emango baitzaio lehentasuna, arretaren oinarri profesionaltasuna eta ezagutza teknikoa direla, baina zerbitzuen erabilizalea lehenetsiz zainketen planifikazioan, barne dela adinekoentzako egoitzak arautzen dituen dekretuaren egokitzea.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zainketa sozialen politika
- Nagusi Agenda
- Next Care

4. Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea

Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategian (2021-2024) antolatutako ekintzetan dago jasota eredu horren sustapena. Estrategiak azpimarratzen duenez, hau du oinarri Euskadiko arreta soziosanitarioak: arreta hornidurarako estrategiak zehaztea, biztanleriaren talde jakin batzuen gizarte eta osasun beharrak modu koordinatu eta eraginkorrean asetzeko. Kasurik gehienetan, euren etxean jarraitzeko laguntza behar dutenen nahiak izaten dituzte ardatz estrategia horiek. Oraingoz ez zaio erantzun egokirik eman nahi horri, arretak eta zerbitzuak koordinatu, integratu eta dibertsifikatu arren.

Lehendik egindako hedapen estrategikoetan metatutako esperientziak frogatu duenez, arretaren ikuspegi holistikoa behar da mikro mailan koordinazio soziosanitarioa antolatzeko, eta talde malguak, hurbilekoak eta elkarrekiko konfiantzan oinarrituak, COVID-19aren pandemiak ekarri duen egoera sozial berriko beharrei erantzuteko. Bestalde, ikuspegi horrek eragiten dituen egoera konplexuak direla eta, koordinatu egin behar dira lehen eta bigarren mailako arreta zerbitzuak, bai eta ekosistemikoa ere, lehen mailako arreta soziosanitariotik abiatuta, erreferentziako profesionalen egituraren arabera (Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia, 2021-2024).

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zainketa sozialen politika
- Netx Care
- Zaintza Lurralde
- BetiON

5. ARDATZA

Ikerketa eta berrikuntza

Gizartearen erronka nagusietako batzuk konpontzeko lagungarri da ikerketa eta berrikuntza sustatzea. Ikerketari dagokionez, ezinbestekoa da zahartze prozesua hobeto ezagutzeko eta ebidentzian oinarritzen diren politikak eta programak garatzeko. Horretarako, diziplina anitzeko ikerketa bultzatu behar da, prozesu biologiko, psikologiko eta sozial horri alor ugariatik ekinez —mikroeskala indibidualetik populazioaren makroeskalarraino—, eta adinekoen egoera zein profil aniztasuna ere aintzat hartuz, eta gizarteari, esku hartzeen eta politiken diseinuari eta enpresei transferi dakiekeen ebidentzia sortuz, berrikuntza sustatzeko.

Ezagutza hori hartu behar du oinarri berrikuntzak, zahartzen ari den gure gizarte honen beharrak asetzeko. Izan ere, premia eta pertsona horiei egokitutako produktuak eta zerbitzuak sortzeko aukera ematen du berrikuntzak, eta bizi luzetasunaren arloko ekonomia bultzatzen.

Estrategiaren ardatz horren xedea zera da, **ikerketa eta berrikuntza oinarri direla, ezagutzea sortzea eta *silver economy* sustatzea**, konpromiso hauei jarraikiz:

1. I+G+Ba sustatzea, helize laukoitzaz baliatuz eta euroeskualdea, EAE, aldundiak eta udalak elkarrekin lotuta.
2. Ikerketa aplikatua bultzatzea, esku hartzeko eta esperimintatzeko proiektu eta programa pilotuetan ebidentzia sortzeko.
3. Lankidetzaren sareak sortzea, bai eta koordinazio eta lerrokatze guneak ere.
4. Zahartzen diren herritarren aldeko jarduera ekonomikoa eta berrikuntza soziala sustatzea.

1. I+G+Ba sustatzea, helize laukoitzaz baliatuz eta euroeskualdea, EAE, aldundiak eta udalak elkarrekin lotuta

I+G+Ba helize laukoitzaren bidez sustatzeak ikuspegi zabala eskaintzen du gizartearen desafio berriei ekiteko, lau eragileen lankidetzaz baliaturik: unibertsitateak, administrazio publikoa, enpresak eta herritarrak. Partaidetzako ekosistema baten bidez bultzatzen du aldaketa gure Estrategiak, eta eremu horretara bildu nahi ditu euroeskualdea, EAE, aldundiak eta udalak ere.

Helburua: ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak martxan jartzea, ezagutza zientifikoa areagotu eta ebidentzia sortzeko eta, hartara, garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzeko eta ideia berritzaileak aplikatzeko zahartzen ari den gure gizartearen erronkei erantzutearren.

Diziplina anitzeko lana proposatzen du, zenbait alorretan —iraupen luzeko zainketa ereduak; zahartze prozesua, luzetarako ikuspegitik aztertua; zahartze osasuntsua...—, hauskortasun eta mendekotasun egoeran dauden adinekoak etxean zein egoitzetan zaintzeko eredu berri batzuetarako trantsizio politika suspertzearen, ikuspegi prospektibo eta konparatuko behatoki bat martxan jarri joera soziodemografikoak eta zainketen etorkizun hipotetikoak aztertu, euroeskualdeko politika soziosanitarioetako esperientzia berritzaileak identifikatu eta —partaidetzaz baliatuz— erabiltzaileen pertzepzioak iker ditzan. Bestalde, proposatzen du biztanleriaren luzetarako ikerketa bat egitea, zahartze egokiaren Euskadiko prozesua eta baldintzak aztertzeke, hurrengo hamarkadan izango diren aldaketa demografikoak eta sozialak txertatuta, eta Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiari (2022-2025) laguntzea zahartze osasuntsuaren alorrean martxan jarri dituen ekimen guztietan.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Next Care
- Zahartzeari eta zainketei buruzko luzetarako ikerketa

2. Ikerketa aplikatua bultzatzea, esku hartzeko eta esperimendatzeko proiektu eta programa pilotuetan ebidentzia sortzeko

Funtsezkoak dira proiektu pilotuak talde edo populazio jakin batzuetan inpaktuak eragiten dituzten produktu, zerbitzu zein metodoen berrikuntza eta hedatze prozesurako. Ezagutza zientifikoaz baliatzen da ikerketa aplikatua gizartearen arazo praktikoak konpontzeko. Esku hartzeko eta esperimendatzeko programa pilotuetan erabil daitezkeen zuzeneko aplikazioen ebidentzia sortzea da xedea, zahartzen diren eta/edo zainketak behar dituzten herritarren beharrak nola ase asmatzeko. Eguneroko bizimoduak arazoak konpontzea da ikerketa zientifiko horien helburua, eta zenbait egoera praktiko kontrolatzea.

Izan ere, esperimendazioak aukera ematen du zerbitzu eta baliabideetan aldaketak probatu, ebaluatu eta baliozkotzeko, zahartzeari eta/edo zainketei ekiteko eredu aldaketaren oinarri izan daitezkeen.

Esperimendazio eta ikerkuntza aplikatua sustatzen ditu gure Estrategiak, eta metodologia esperimendalaren erabiltzen ebidentziak sortzeko martxan jartzen diren tokiko zainketa sistemen eraginkortasunaz, egokitasunaz, berrikuntzaz eta iraunkortasunaz. Honenbestez, berrikuntzen diseinuak barne hartzen ditu testatze esperimendalaren geroko zerbitzu potentzial berrietarako negozio ereduak, eta zainketen tokiko ekosistemak dinamizatu, sistematizatu, ebaluatu eta hedatzeko metodologia eta tresnen diseinua eta aplikazioa sustatzen, Lurralde arteko Transferentzia Sare bat, Hedapen Programa bat eta Ebaluazio Sistematikoko Programa bat bultzatuz gizarte inpaktuaren eta kostu-etekin erlazioaren ebidentzia lortzeko.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusitako epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zaintza Lurraldea
- Zahartzeari eta zainketei buruzko luzetarako ikerketa
- Next Care

3. Lankidetzaren sareak sortzea, bai eta koordinazio eta lerrokatze guneak ere

Zahartzearen inguruan diharduten eragileen lankidetzaren, koordinazioa eta lerrokatzea ditu oinarri helize laukoitzaren bidezko lanak; hori dela eta, ezinbestekoa da administrazio publikoaren maila guztien, unibertitateen, hirugarren sektorearen eta herritarren arteko elkarlana Euskadin bizi luzetasunaren erronkari ekiteko.

Udal, aldundi eta autonomia-erkidegoko administrazio publikoaren arteko lankidetzaren sareak sortzea sustatzen dute Estrategia honek martxan jarritako proiektu eragileek, bai eta alor publiko zein pribatuko eta hirugarren sektoreko erakunde eta organismoekin harremanak ezartzea ere —lankidetzazko gobernantzen bidez—, zerbitzuak egokiro koordinatzeko eta eragile guztiekin uztartzeko aukera ematen duten euskarri eta tresna instituzionalak eta antolakuntzakoak garatuz. Horri esker, zahartzeak Euskadin eragiten dituen erronkei elkarrekin aurre egiteko antolatzen dira eragile guztiak, ardatz hauen inguruan: herritarren partaidetza aktiboa, trantsizioak eta bizi proiektua, autonomia eta hauskortasuna, arreta eta zainketak, ikerketa eta berrikuntza.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zaintza Lurraldea
- Zahartzeari eta zainketei buruzko luzetarako ikerketa
- Next Care

4. Zahartzen diren herritarren aldeko jardueraren ekonomikoa eta berrikuntza soziala sustatzea

Zilarrezko ekonomiaren edo silver economy delakoaren garapena baliagarri izan daiteke zahartzen ari den gure gizartearen beharrik asetzeko, horretarako produktuak eta zerbitzuak sortuz eta egokituz. Aurreikuspenek diotenez, etekinak ekar ditzake silver economyak, eta nabarmen lagundu enplegua sortzen. Besteak beste, lanbide berriak sustatzen ditu, eta produktu zein zerbitzu berriak garatzen merkatuan, adinekoen beharretara egokituak, haien ongizatea eta autonomia hobetzen eta iraupen luzeko zainketak ahalbidetzen dituztenak. Proposatzen da, beraz, Euskadiko lurralde eta toki administrazioekin elkarlanean ekitea arazoari.

Silver economya sustatu behar da, enplegua sortzea helburu dela, eta, zehazki, ekimen berritzaileak bultzatu behar dira zainketen ekonomiaren alorrean, sektore hori ikusgarri bihurtuz eta balioetsiz. Horrez gain, Adinberri, Nagusi Intelligence Center eta Health Intelligence Center sustatu behar dira, adinekoentzako gizarte berrikuntzarako lankidetzaren guneak diren aldetik, estrategia desberdinak baina elkarri lotuak bultzatuz, sinergiak eta ezagutza partekatua sortuz EAEn eta ABEN (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa) euroeskualean. Laburbilduz, hau da xedea: berrikuntza soziala bultzatzea —beste gizarte eragile batzuekin elkarlanean—, Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuaren arretaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko, sektore publikoaren, hirugarren sektore sozialaren eta enpresen ekimenei bidez, bai eta jardueraren ekonomikoa eta enplegua sortzeko ere hiru sektore horietako zenbait alorretan; besteak beste, zilarrezko ekonomian eta zainketetan.

Estrategiarekin lotura duten proiektu eragileak (ikusi epigrafe hau: Proiektu eragileak):

- Zaintza Lurraldea
- Next Care

Proiektu eragileak

Hona zer diren proiektu eragileak: Estrategiak bereganatutako konpromisoek ekintzaren bidez erantzuteko martxan jartzen diren ekimenak.

Plangintza honetako helburuak ekintza zehatz baten bitartez gauzatzeko modua dira proiektu eragileak, eta epe labur-ertainera aldaketa zehatzak eta ebaluagarriak eragitea dute xede.

Jarraian, Estrategiaren 11 proiektu eragileak azalduko ditugu. Gogoan izan Estrategiaren ardatz baten edo batzuen konpromiso bati edo batzuei erantzun diezaiekeela proiektu bakoitzak. Estrategia garatu ahala, ekimen berriren bat gehi dakieke proiektu eragile horiei, betiere hemen ageri diren konpromisoak betetzen laguntzea xede baldin badu.

Fitxa batean laburbilduta ageri da proiektu eragile bakoitza, eta han daude haren deskribapena, helburuak, ardatzak eta konpromisoak.

Proiektua

EUSKADIKO ADINEKOEN BATZORDEA

Deskribapena

Adinekoen politiken alorreko elkarrizketarako eta lanerako gune iraunkor bat da Euskadiko Adinekoen Batzordea, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren baitako

Helburuak

Eusko Jaurlaritzaren eskumen eremuan, adinekoentzako politikak orientatu, diseinatu, planifikatu, bete eta/edo ebaluatzea, eta Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7. artikuluari jarraikiz, baterako edo elkarlaneko ekimenak bultzatzea, helburu hauek dituztenak:

- Adinekoen pertzepzio soziala areagotzea eta estigmari aurre egitea, haien bizi baldintzak hobetzea eta partaidetza soziala bultzatzea.
- Mendekotasuna jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden adinekoekiko arreta hobetzea eta haien autonomia sustatzea; adineko guztien bizitza betea eta talentua bultzatzea, bizi zikloaren fase eta gune guztietan, belaunaldi guztietako adinekoen gaitasunak garatzeko bideak eskainiz eta haien laguntza beharrei progresiboki erantzunez, hiru ardatz hauen inguruan: pertsonak, laguntzak eta ingurua.
- Gure herriko biztanleen batez besteko bizi-itxaropena 85 urtera igotzea, eta desgaitasunik gabeko zahartzeaz gozatzea.

Ardatzak eta konpromisoak

I. ardatza

- 1. konpromisoa. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidarizatit, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
- 2. konpromisoa. Adinekoentzako gizarte zentroyen eredia eraldatu eta asoziazionismoa sustatzea, bizitza beteko ikuspegia oinarri dela.
- 3. konpromisoa. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz.
- 4. konpromisoa. Komunitate eta ingurune lagunkoiak sustatzea bizi ziklo osoan.

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoen laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak).
- 2. konpromisoa. Gaikuntza sustatzea, bizitza betea garatzeko..

Informazio gehiago

<https://www.euskadi.eus/noticia/2021/artolazabal-presenta-euskadiko-adinekoen-batzordea-comision-que-eman-mesa-dialogo-civil-disenar-politicas-dirigidas-personas-mayores/web01-s2enple/es/>

Proiektua**HELDUAK ZABALTZEN****Deskribapena**

Adinekoentzako gizarte zentrozen eraldatze integralari eta digitalizazioari laguntzeko proiektua.

Helburuak

Eremu horietako errealitatea ezagutzea, haien arteko lotura bideratzea eta gizarte zentrozen eredu berriak sortzea Euskadiko adinekoentzat, egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara eta ingurune hurbileko premietara egokitu daitezen, COVID-19ak eragindako egoera eta digitalizatzeko beharra kontuan izanik.

Berriazko helburuak:

- Partaidetza prozesu bat bultzatzea Euskadiko adinekoentzako gizarte zentrozen eredu berriak diseinatzeko.
- Adinekoentzako gizarte zentroak diseinatzea, kontuan izanik landa ingurunearen eta hirikoaren arteko aldea eta lurralde historiko bakoitzaren kasuistika.
- Berrikuntzari ekitea eta estrategia berriak eraikitzea zerbitzu digitalak eskaintzeko, ekosistema sozialarekiko eta, zehazki, gizarte zentroekiko adinekoen gogobetetasun maila hobetearren.
- Elkarrekin konektatzea EAEko hiru lurraldeetako gizarte zentroak eta haien erabiltzaileak.
- Eredua eraldatzeko bide orri bat diseinatzea, barne direla EAEko adinekoentzako gizarte zentrozen egoeraren hasierako diagnostikoko ikaskuntzak.
- Zentro hibridoaren eredu bat diseinatzea, non jarduera eta harremanak osagarriak izango baitira fisikoki eta birtualki.
- Proiektu pilotuak bultzatzea zenbait zentrotan, eredu berria diseinatu eta martxan jartzeko.
- Prozesuaren ebaluazioa egitea, bai eta zentro pilotuetan eredu aldaketak eragindako inaktuarena ere.
- Eraldatze prozesua sistematizatzea, barne direla tresna, trebakuntza eta artikulu zientifikoaren bidez hura zabaltzeko jasotako ikaskuntzak.
- Laguntzea eredu Euskadiko gainerako zentroetara zabaltzen eta hedatzen, funtsezko eragileak trebatuz.
- Ebidentzia zientifikoa sortzea adinekoentzako gizarte zentzoei buruzko ezagutza berritzailea jasotzeko.
- Euskadi puntako herrialdeen artean kokatzea ongizaterako azpiegitura komunitarioen berrikuntzari, eguneratzeari eta eraldatzeari dagokionez. ón y transformación de las infraestructuras comunitarias para el bienestar.

Ardatzak eta konpromisoak

I. ardatza

- 1. konpromisoa. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidaritzatik, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
- 2. konpromisoa. Adinekoentzako gizarte zentroyen eredu eraldatu eta asoziazionismoa sustatzea, bizitza beteko ikuspegia oinarri dela.
- 3. konpromisoa. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz.
- 4. konpromisoa. Komunitate eta ingurune lagunkoia sustatzea bizi ziklo osoan.

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoen laguntza euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak)
- 2. konpromisoa. Gaikuntza sustatzea, bizitza betea garatzeko
- 4. konpromisoa. Eguneroko bizimodurako teknologia eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoen

III. ardatza

- 1. konpromisoa. Bakardadeari aurre egiteko ekintzak sustatzea.
- 4. konpromisoa. Autonomiaren galera prebenitzea.

Aplikazioaren faseak

1. Fasea: gobernantza organoak hautematea eta sortzea (2022ko urtarrila-martxo)
2. Fasea: hiriko zentroyen eredu berria diseinatzea (2022ko apirila-uztaila)
3. Fasea: hiriko zentroyen eredu berria garatzea (2022ko iraila-2023)
4. Fasea: landa eremuko zentroyen eredu hautematea (2023ko urtarrila-martxo)
5. Fasea: landa eremuko zentroyen eredu berria diseinatzea (2023ko apirila-ekaina)
6. Fasea: landa eremuko zentroyen eredu berria garatzea (2023ko iraila-abendua)
7. Fasea: ereduaren hedagarritasuna (2024ko urtarrila-abendua)

Informazio gehiago

www.helduakzabaltzen.eus

Proiektua

AGENDA NAGUSI

Deskribapena

Hona NAGUSI Agendaren xedea: laguntzea partaidetza sozialaren kultura sortzen, eta konfiantza handiagoa izaten erakundeekiko eta erabaki prozesuak garatzeko moduarekiko. Eusko Jaurlaritzaren Zahartze Aktiborako Estrategiak bultzatzen du ekimena, zeina bat baitator Gobernantza eta Berrikuntza Estrategiarekin, Boluntariotzari buruzkoarekin eta Euskadiko Hirugarren Sektorea Sustatzekoarekin. Bat dator, halaber, nazioarteko zenbait erakunderen politika eta aginduekin (Europar Batasuna...) eta nazioarteko organismo batzuenekin (Osasunaren Mundu Erakundea eta Nazio Batuen Erakundea, besteak beste)

Nagusi Agendan, gai jakin bati buruzko gogoeta egiten da urtero, ondoren erabakiak hartu eta politika planifikatzeko lagungarri izan dadin.

2021ean, zahartze gogobetegarria eta betea izateko adinekoek nolako egoitza eredia behar duten izan zen gogoetagai.

2022an, berriz, adinkeriari buruz egin zen gogoeta. Ekimenaren xedea: desabantaila edo bidegabekeria sozialak eragiten dituzten estereotipo mugatzaileen aurkako borrokan aurrera egitea.

Helburuak

2021

- Gogoeta egitea EAEko egoitza zentroetako adinekoekiko arreta ereduaz, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza zentroi buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua berrikusteko oinarri gisa baliatzeko.
- Nagusi AGENDA partaidetza prozesuari buruzko ondorioak ateratzea, zera ebaluatzen: garatutako ekintzen eraginkortasuna eta egokitasuna, lortutako emaitzak eredia hobetzeko egin beharreko aldaketak

2022

- Desabantaila edo bidegabekeria sozialak eragiten dituzten estereotipo mugatzaileen aurka jardutea.
- Belaunaldien arteko justizia sendotzeko etorkizuneko testuinguru hipotetikoak irudikatzea eta eraikitzea, Euskadi geroz eta zaharrago baterako.
- Belaunaldien arteko harremanak sendotzea, adinkeriaren aurkako prebentzio neurri gisa.
- Sentsibilizazio kanpaina bat prestatzea.
- Elkarlanerako proposamenak egitea.

Ardatzak eta konpromisoak

I. ardatza

- 1. konpromisoa. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidarizatit, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
- 3. konpromisoa. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz.

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak)

III. ardatza

- 3. konpromisoa. Iraupen luzeko egoitzetako zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea.

Informazio gehiago

<https://www.agendanagusi.eus/>

Proiektua

EUSKADI LAGUNKOIA

Deskribapena

Euskadi Lagunkoia arrakastaz ari da garatzen 2012. urteaz geroztik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurune fisiko eta sozialen lagunkoitasunean aurrera egiten ari diren 74 udalerriz osatutako sare gisa eratu da.

Helburuak

Adinekoen partaidetza aktiboa sustatzea, erabakietan parte hartzean eta inguruneen hobekuntzan oinarrituta.

Berariazko helburuak:

- Gizartean parte hartzeko prozesuak sortzea.
- Udalaren edo lurraldearen eskuduntza eremuetan aldaketak ahalbidetzea, herritarren bizi kalitatea hobetzeko.
- Adinekoek gizartean ongizatea sortzeko duten gaitasuna baliatzea.
- Lagunkoitasunaren aldeko ekimen sare bat sortzea Euskadin.

Ardatzak eta konpromisoak

I. ardatza

- 1. konpromisoa. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidaritzatik, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
- 3. konpromisoa. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz.
- 4. konpromisoa. Komunitate eta ingurune lagunkoiak sustatzea bizi ziklo osoan.

II. ardatza

- 1. konpromisoa: Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kole

III. ardatza

- 1. konpromisoa: Bakardadeari aurre egiteko ekintzak sustatzea.
- 4. konpromisoa. Autonomiaren galera prebenitzea

Informazio gehiago

<https://www.euskadilagunkoia.net/>

Proiektua**ALTXOR****Deskribapena**

Informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta bizi proiektuetarako laguntza emateko onlineko zerbitzua eta bulego pilotu erdipresentzialak

Helburuak

Onlineko zerbitzu zentralizatu bat eta hiru bulego pilotu presentzial diseinatzea eta aplikatzea, 65 urtetik gorako herritarrei edo erretiroa hartzean daudenei laguntza emateko euren bizi proiektuak —indibidualak zein kolektiboak— gara ditzaten. Horretarako, informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza espezializatu integrala eta pertsonalizatua emango zaie (bizitzako etapa horietan), euren bizi proiektuak garatzeko interesgarriak diren zenbait gairi buruz.

Ardatzak eta konpromisoak

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak)
- 3. konpromisoa. Zahartze prozesuari lotutako bizi trantsizioak egiten laguntzea adinekoek.
- 4. konpromisoa. Eguneroko bizimodurako teknologiak eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoek

III. ardatza

- 3. konpromisoa. Autozainketa eta ongizate teknologiak sustatzea, arreta etxean bertan emateko
- 4. konpromisoa: Autonomiaren galera prebenitzea.

Proiektua

BIZITZA BETEA

Deskribapena

Adinekoentzako trebakuntza saioak prestatzeko gida

Helburuak

- Adinekoak trebatzeko eredu bat proposatzea —«bizitza beteko zahartzea» ikuspegitik—, non norberaren ezaugarriak, egoera partikularra eta testuinguruaren baldintzak eta baliabideak kontuan harturik helburu hau lortu nahi baita: ahalik eta gehiena garatzea adinekoen gaitasun pertsonalak eta asetzea oinarritzko behar pertsonalak eta sozialak.
- Erreferentzia esparru bat aurkeztea eragileek bizi proiektu pertsonalizatuak bultzatzen, hazkunde pertsonala ere txertatuz, kontuan hartuz bizitzako oinarritzko beharrak eta garapen soziala, gizarterako baliagarriak diren ekimenetan engaiatuz eta haietan esku hartuz.
- Adinekoentzako trebakuntza jarduerak antolatzeko orientatzea eta trebatzea hala nahi duten erakunde publikoak eta pribatuak. Berariazko ekintzak bultzatzea, testuinguru bakoitzera egokituak. Erreferentzia egokia da agiri hau adineko ahaldunduak trebatzeko: ekintzaileak, solidarioak eta gizartearekin konpromisoa dutenak.

Ardatzak eta konpromisoak

I. ardatza

- 1. konpromisoa. Baterako gobernantza sustatzea adinekoen erakunde eta sareen gidaritzatik, bai eta zuzeneko esku hartzea ere.
- 2. konpromisoa. Adinekoentzako gizarte zentroen eredu eraldatu eta asoziazionismoa sustatzea, bizitza beteko ikuspegi oinarri dela.
- 3. konpromisoa. Diskriminazioa ezabatzea, zahartzen ari direnen eskubideen alde eginez eta belaunaldien arteko harremanak bultzatuz. Komunitate eta ingurune lagunkoia sustatzea bizi ziklo osoan.

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak).
- 2. konpromisoa. Gaikuntza sustatzea, bizitza betea garatzeko.
- 3. konpromisoa. Zahartze prozesuari lotutako bizi trantsizioak egiten laguntzea adinekoek.
- 4. konpromisoa. Eguneroko bizimodurako teknologiak eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoek.

III. ardatza

- 4. konpromisoa. Autonomiaren galera prebenitzea

Proiektua**BETION****Deskribapena**

Etxeko laguntza zerbitzu iraunkorra da, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan eskaintzen dena, gizarte larrialdi edo premiei aurre egiteko berariazko prestakuntza jaso duten profesionalen ardurapean.

Hauentzat da zerbitzua: bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoentzat, eta mendekotasun onartua edo gizarte zerbitzuek onartutako zaurgarritasun egoera pairatzen duten 65 urtetik gorakoentzat. Desgaitasun intelektuala, fisikoa edo sensoriala jasaten eta onartutako mendekotasuna (edozein mailatakoa) dutenentzat ere bada, bai eta diagnostikatutako gaixotasun mentalen bat dutenentzat eta onartutako mendekotasuna edo gizarte bazterketako arriskua pairatzen dutenentzat ere.

Helburuak

- Euren ohiko ingurune familiarrean eta sozialean jarrai dezaten laguntzea autonomia mugatua dutelako edo gizartetik isolatuta geratzeko arriskuan daudelako premiazko arreta edo ikuskapen maizkoa edo jarraitua behar dutenei, bai euren etxean bai handik kanpo, egoitza zerbitzuetara eraman gabe guztiz beharrezkoa ez baldin bada.
- Arreta integrala eskaintzea erabiltzaileei, laguntza zerbitzuekiko etengabeko konexioaren bidez, haien bizi kalitatea hobetu eta etxe barruan autonomia eta segurtasuna dutela senti dezaten.
- Berehala esku hartzea behar edo larrialdi sozialeko egoeretan.
- Laguntza eskaintzea erabiltzaileak zaintzen dituen ingurune soziofamiliarri.

Ardatzak eta konpromisoak

II. ardatza

- 1. konpromisoa. Adinekoek laguntzea euren bizi proiektuak garatzen (indibidualak, bikotekakoak eta kolektiboak).
- 3. konpromisoa. Zahartze prozesuari lotutako bizi trantsizioak egiten laguntzea adinekoek.
- 4. konpromisoa. Eguneroko bizimodurako teknologiak eskuratzen eta menderatzen laguntzea adinekoek.

III. ardatza

- 1. konpromisoa. Bakardadeari aurre egiteko ekintzak sustatzea.
- 2. konpromisoa. Adinekoa bere ohiko ingurunean egon dadin bultzatzea, prebentzio eta detekzio zerbitzuak garatuz.
- 3. konpromisoa. Autozainketa eta ongizate teknologiak sustatzea, arreta etxean bertan emateko.
- 4. konpromisoa. Autonomiaren galera prebenitzea

IV. ardatza

- 4. konpromisoa. Arreta soziosanitarioko eredu berri eta integral bat sustatzea.

Informazio gehiago

<https://www.euskadi.eus/web01-a1betion/es/>

Proiektua

ZAINKETA SOZIALEN POLITIKA

Deskribapena

Gizarte zainketako politika baten diseinua eta sustapena Sailaren esparruan, eta zainketa eredu berri baterako trantsizioa, osasun eta hezkuntza sistemekin partekatua.

Helburuak

Zainketen oreka berria eta birbanaketa.

- Zainketen ardura familiaren magaletik gizartera aldatzea, hau da, eremu publikoaren esku uztea, ez pribatuarenean.
- Sektore publikoaren, pribatuaren, gizartearen eta familien elkarlana, gizarte zainketetako beharrak asetzeko.

Ardatzak eta konpromisoak

III. ardatza

- 2. konpromisoa. Adinekoa bere ohiko ingurunean egon dadin bultzatzea, prebentzio eta detekzio zerbitzuak garatuz.
- 3. konpromisoa. Autozainketa eta ongizate teknologiak sustatzea, arreta etxean bertan emateko.
- 4. konpromisoa. Autonomiaren galera prebenitzea.

IV. ardatza

- 1. konpromisoa. Kultura hau sustatzea gizartean: bizitza osoko zainketen beharra eta gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna.
- 2. konpromisoa. Etxeko arreta eta hurbileko ingurune komunitariokoa areagotzea.
- 3. konpromisoa. Iraupen luzeko egoitzetako zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea.
- 4. konpromisoa. Arreta soziosanitarioko eredu berri eta integral bat sustatzea.

Proiektua

ZAINZA LURRALDEA

Deskribapena

Proiektuaren xedea: zaurgarritasuna, hauskortasuna eta mendekotasuna jasaten duten adinekoen bizi kalitatea hobetzeko tokiko zainketa ekosistemak suspertzea, ebaluatzea, hedatzea eta haien berri ematea.

Helburuak

Gipuzkoako tokiko zainketa ekosistemak hedatzeko azpiegitura bat diseinatzea eta martxan jartzea. Berriazko helburuak:

Berriazko helburuak:

- Zaintza Ekosistema Scaling Huba kudeatzeko egitura diseinatzea eta martxan jartzea, tokiko zainketa ekosistemen hedapena sustatzeko.
- Tokiko zainketa ekosistemak suspertu, sistematizatu, ebaluatu eta hedatzeko metodologiak eta tresnak diseinatzea eta aplikatzea.
- Tokiko zainketa ekosistemak sistematizatu eta transferitzeko Lurraldeko Transferentzia Sarea eta Hedapen Programa diseinatzea eta sustatzea.
- Ebaluazio Sistemikoko Programa bat diseinatu eta bultzatzea, ekosistemen, antolakuntza prozesuen, erakundeen ahalmenen, inpaktu sozialen (erabiltzaileen bizi kalitatea) eta tokiko zainketa ekosistemen kostu-irabazi erlazioa (iraunkortasuna) ebaluatzeko.
- Plataforma Digital bat diseinatu eta bultzatzea (Zaintza HerriLab), haren bidez aplikatzeko datu soziosanitarioen gobernantza eta elkarreragingarritasunerako estrategia, tokiko zainketa ekosistemak kudeatzeko euskarri izan dadin.
- Tokiko zainketa ekosistemen hedapenari buruzko Komunikazio Plan bat diseinatu eta aplikatzea.

Ardatzak eta estrategiak

III. ardatza

- 2. konpromisoa. Etxeko arreta eta hurbileko ingurune komunitariokoa areagotzea.
- 4. konpromisoa. Arreta soziosanitariorako eredu berri eta integral bat sustatzea.

IV. ardatza

- 2. konpromisoa. Ikerketa aplikatua sustatzea, esku hartzeko eta esperimintatzeko proiektu eta programa pilotuetan ebidentziak sor ditzan.
- 3. konpromisoa. Lankidetzaren sareak eta koordinazio zein lerrokatze guneak sortzea.
- 4. konpromisoa. Jarduera ekonomikoa eta berrikuntza soziala bultzatzea, eta zahartzen ari direnen zerbitzura erabiltze

Aplikazioaren faseak

I. fasea: Zaintza Ekosistema Scaling Huba diseinatzea (2022ko urtarrila-martxoa)

II. fasea: Tokiko zainketa ekosistemak suspertzea (2022-2023)

III. fasea: Tokiko zainketa ekosistemen ebaluazioa (2022-2023)

IV. fasea: Hedapen Plana aplikatzea

V. fasea: Hedapena komunikatzeko estrategia

Proiektua**ZAHARTZEARI ETA ZAINKETEI BURUZKO LUZETARAKO AZTERKETA****Deskribapena**

Luzetarako azterketa baten ikerketa diseinuaren garapena, EAEn bizi diren 70 urteko edo gehiagoko herritarren jarraipenean oinarritua. 2024an da egitekoa luzetarako azterketaren lehenbiziko datu bilketa.

Azterketa kualitatiboa, helburu hau duena: Euskadiko herritarren zahartze egokirako osagaiak baliozkotzea, galdetegirako adierazleak diseinatu eta hautatzeko abiapunt

Helburuak

Luzetarako diseinua duen biztanleriaren azterketa bat egitea, zahartze egokiaren prozesua eta baldintzak ikertzeko, hurrengo hamarkadan jazoko diren aldaketa demografikoak kontuan hartuta. Honetarako da lagungarria ezagutza hori: gizarte eta osasun zerbitzuen, iraupen luzeko zainketen eta bizilekuen planifikazioa eta antolakuntza gidatzeko, eta ondo zahartzeko behar diren elementuak hobetzeko.

Ardatzak eta estrategiak

VI ardatza

- 1. konpromisoa. I+G+Ba sustatzea, helize laukoitzaren bidez, elkarrekin lotuz euroeskualdea, EAE, aldundiak eta udalak.
- 2. konpromisoa. Ikerketa aplikatua sustatzea, esku hartzeko eta esperimintatzeko proiektu eta programa pilotuetan ebidentziak sor ditzan.
- 3. konpromisoa. Lankidetzaren sareak eta koordinazio zein lerrotatze guneak sortzea..

Aplikazioaren faseak

2022. Diseinua

2023. Pilotajea

2024. Lehen bolada

Proiektua**NEXT - CARE****Deskribapena**

Hona NEXT-CARE proiektuaren xedea: zaugarritasun edo mendekotasun egoera pairatzen duten adinekoak zaintzeko eredu berrietarako trantsizio politika eragitea edo sustatzea, etxean zein egoitza zentroetan.

Helburuak

Mugaz haraindiko gune bat sustatzea, ABEN euroeskualdean (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa) lurraldekako berrikuntza sareak eta eremuak guneak sortzeko

Ardatzak eta estrategiak

IV. ardatza

- 1. konpromisoa. Kultura hau sustatzea gizartean: bizitza osoko zainketen beharra eta gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna, hots, arduren demokratizazioa
- 2. konpromisoa. Etxeko arreta eta hurbileko ingurune komunitariokoa areagotzea
- 3. konpromisoa. Iraupen luzeko egoitzetako zainketen eredu berri baterako trantsizioa sustatzea.
- 4. konpromisoa. Arreta soziosanitariorako eredu berri eta integral bat sustatzea.

V. ardatza

- 1. konpromisoa. I+G+Ba sustatzea, helize laukoitzaren bidez, elkarrekin lotuz euroeskualdea, EAE, aldundiak eta udalak..
- 2. konpromisoa. Ikerketa aplikatua sustatzea, esku hartzeko eta esperimintatzeko proiektu eta programa pilotuetan ebidentziak sor ditzan.
- 3. konpromisoa. Lankidetzaren sareak eta koordinazio zein lerrokatze guneak sortzea.
- 4. konpromisoa. Jarduera ekonomikoa eta berrikuntza soziala bultzatzea, zahartzen ari direnen zerbitzura jartzeko.

Jarraipena eta ebaluazioa

Proposatzen dugu metodologia kuantitatiboak, kualitatiboak eta partaidetzazkoak erabiltzea *Adinekoekiko Euskal Strategiaren* urteroko, bitarteko eta amaierako ebaluaziorako. Metodologia kuantitatiboak datuak biltzeko eta aztertzeko erabiltzen dira; kualitatiboak, iritziak eta diskurtsoak biltzeko eta aztertzeko, eta partaidetzazkoak, azkenik, pertsonak ebaluazioaren prozesuaz eta emaitzez jabetzeko.

Estrategia honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, berriz, hau proposatzen dugu: jarraipen batzordea bat osatzea, eta produktu, emaitza eta inpaktu adierazleak biltzea.

Jarraipen batzordea

Jarraipen batzorde bat sortzea proposatzen dugu Estrategia monitorizatzeko eta haren jarraipena egiteko, eta urtean behin elkartzeko hura osatzen dutenak: Euskadiko Adinekoen Batzordea, adinekoentzako politikak diseinatzeko dituen Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak sortutako batzordea eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Bestalde, Estrategiaren arrakasta, garapena eta iraunkortasuna lortzeko behar diren baliabideak eta egiturak ere ebaluatuko ditu batzorde horrek, eta elementu hauen jarraipena egingo du: produktu adierazleak, proiektu eragileen gauzatze eta helburuen betetze maila, emaitzak, eta esku hartzei esleia dakizkiekeen ingurunearen epe laburreko eta ertaineko aldaketa sozialak eta fisikoak.

Produktuen adierazleak

Proiektu eta konpromiso eragileekin zuzeneko lotura dutenak dira produktu adierazleak deritzenak. Urtero bildu behar dira adierazle horiek, eta jarraipen txosten batean aurkeztu. Horretarako, helburuen gauzatze eta betetze maila erakusten duten adierazle horiek — eta beste batzuk— bildu egin behar dituzte proiektu eragileek. Proiektu eragile bakoitzak erabaki behar du — kuantitatiboki— zein diren xedeak eta helburuak, eta nola jaso behar diren adierazleak.

Emaitzen adierazleak

Emaitzen adierazleak aztertzeke, uste da erabilgarri izango direla Eusko Jaurlaritzak egindako inkestetako datuak, ardatzei, konpromisoei eta proiektu eragileei buruzko adierazleak dituztenak. Besteak beste, hau erabili ahalgo da, seguruenik: Euskadiko 55. urteko eta hortik gorako Herritarren Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI+55), Gizarte Beharrei buruzko Inkesta (GZEE-GBE) eta Osasunari buruzko Inkesta (EAEOI). Emaitzen adierazleen ebaluazioa aztertzeke, lagungarri izango da inkesta horien maiztasuna eta datu bilketaren jarraitutasuna. Adierazle kuantitatibo horiei ebaluazio kualitatiboa gehi dakieke, parte-hartzean oinarritutako kontsulta prozesu baten bidez. Horretarako, elkarrizketak egingo dira, eta foku taldeak osatuko, eta galde sorta bat bidaliko zaie zahartzearen eremuko eragile, erakunde eta adituei. Aurreikusten da Estrategiaren bitarteko eta amaierako ebaluazioan jasotzea adierazle horiek.

Inpaktuaren adierazleak

Inpaktuak: pertsonen osasunak (funtzio fisikoak, kognitiboak eta emozionalak) eta ongizateak epe luzera izaten dituzten aldaketak. Aurreikuspenen arabera, esku hartzeak martxan jarrita lortuko da ongizatea, partzialki bederen. Faktore ugari eragiten diete inpaktuen adierazleei, eta ez da erraza izango Adinekoekiko Euskal Estrategiari argiro egozte, baina, hala ere, garrantzitsua da haiek jasotzea epe luzeko inpaktuak erregistratzeko.

Inpaktuaren ebaluazioa kalkulatzeko, berriz, proposatzen dugu Zahartze Aktiboko Indizea (ZAI) erabiltzen jarraitzea. Zahartze aktiboaren lau alderdi edo alor hartzen ditu aintzat ZAIak zahartze aktiboaren neurketan: enplegua, partaidetza soziala, bizitza independentea eta gaitasunak. Hogeita bi adierazleren bidez kalkulatu da alderdi bakoitza.

Hona adierazle horren helburu nagusia: adinekoen ongizatea ez ezik haiek ekonomiari eta gizarteari egiten dizkieten ekarpenak ere xede dituen Europako politika publikoen garapenari laguntzea, datu enpirikoen bitartez. Indize horren arabera, zera da zahartze aktiboaren kontzeptua, zahartu ahala pertsonen lan merkatuan eta ordainik gabeko bestelako jarduera produktiboetan (senideen zaintza eta boluntariotza, besteak beste) parte hartzen jarraitzen duten egoera, osasuntsu, independente eta seguru bizi direla.

Lurralde jakin batean martxan jarritako ekimenen, politiken eta planen aurrerapena eta eraginkortasuna ebaluatzeke eta monitorizatzeko lagungarri da ZAIa. UNECEn helburu nagusiak oinarri hartuta sortu zen indize hori:

- Laneko bizitza luzeagoak bultzatzea eta adinekoen lanerako gaitasunari eustea.
- Adinekoen parte-hartzea, diskriminaziorik eza eta gizarteratzea sustatzea.
- Adinekoen duintasuna, osasuna eta independentzia sustatzea eta zaintzea.
- Belaunaldi arteko elkartzasuna mantentzea eta hobetzea.

Azken ebaluazioa

Inflexio gune bat da azken ebaluazioa (adinekoekiko Estrategiaren ebakuazio orokorra), protagonista guztiak egindako ikerketa, jarraipen txosten, prozesu balorazio eta sakoneko elkarrizketen sakoneko jarraipena eta bateratze-lana. Proiektu eragileen inpaktuaren ebaluazioa eta txostenen bilketa eta azterketa ere sartzen da azken ebaluazioan.

Erreferentzia bibliografikoak

Aubixa, Aptes, Helduak Adi! (2022): Zaharberri. Reflexiones para una Vida Plena en la vejez. <https://www.zaharberri.org>

Capucha, L.; Moreno Fernández, L.; Matsaganis M.; Ferrera M. (2003). «¿Existe una “malla de seguridad” en la Europa del Sur?: la lucha contra la pobreza y la exclusión en España, Grecia, Italia y Portugal». Documentos de Trabajo, (17):1. CSIC. Unidad de Políticas Comparadas.

Comas d Argemir, D. (2016). Hombres cuidadores: Barreras de género y modelos emergentes. *Psicoperspectivas*, 15(3), 10-22.

Culfaz, E. (2014). El régimen del bienestar del sur de Europa y los efectos de la crisis 2007 en el bienestar de España. *Papeles de Europa*, 27(1) (105-36 or.).

Daatland, S. O. (2005). Quality of life and ageing (371-377 or.). na.

del Barrio Truchado, E.; Rascado, S. M.; Castiello, M. S. (2018). Del envejecimiento activo a la ciudadanía activa: el papel de la amigabilidad. *Aula abierta*, 47(1), 37-44.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2021). EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa. Eusko Jaurlaritzza.

Díaz, J. P.; García, A. A. (2018). Envejecimiento demográfico y vejez en España. *Panorama social*, 28, 11-47.

EUSTAT (2018). Denboraren Aurrekontuen Inkesta. Euskal Estatistika Erakundea. Eusko Jaurlaritzza.

EUSTAT (2022). Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestako (BJA). Euskal Estatistika Erakundea. Eusko Jaurlaritzza.

Fernández, Y. L.; Nebreda, J. D.; Da Cruz, S. R. (2018). El ocio a lo largo de la vida: Un elemento de cohesión social. In *Ocio y participación social en entornos comunitarios* (61-75 or.). Errioxako Unibertsitatea.

Foster, L.; Walker, A. (2013). Gender and active ageing in Europe. *European Journal of Ageing*, 10(1), 3-10.

Foster, L.; Walker, A. (2015). Active and successful aging: A European policy perspective. *The gerontologist*, 55(1), 83-90.

Gøsta, E. (1990). *The three worlds of Welfare Capitalism*. Cambridge, Polity Press (9-54 or.)

Helduak Adi! (2022): Bizitza Betea: Adinekoentzako prestakuntza-jarduerak egiteko gida. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.

Estatistika Institutu Nazionala (2018). Familia Aurrekontuen Inkesta (EPV).

Kalache, A. (2013). *The longevity revolution: Creating a society for all ages*. Department of the Premier and Cabinet.

Mateos, M.; de Diego, M.; Martín, J.A.; Calvo, M.; Elorriaga, E.; Esnaola, S. (2018). EAEko Osasun Inkesta. EAEko 2018ko Osasun Inkestako datu nabarmenak. Gasteiz: Osasuneko, Azterketa Zerbitzuko eta Osasun Ikerketako Saila, 2018. Espainiako Gobernu.

Moreno, G. (2008). *Crisis y reconstrucción del estado del bienestar*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

OECD, D. S. E. (2019). Society at a Glance 2019. Organization for Economic.

OME & Organización Panamericana de la Salud. (2013) . Demencia: una prioridad de salud pública. Organización Panamericana de la Salud. <https://apps.who.int/iris/handle/10665/98377>

OME (2016). Acción multisectorial para un envejecimiento saludable basado en el ciclo de vida: proyecto de estrategia y plan de acción mundiales sobre el envejecimiento y la salud: Informe de la Secretaría (No. A69/17). Osasunaren Mundu Erakundea. Osasunari buruzko 69. Mundu Batzarra. 2016/04/22

Enplegu eta Gizarte Politiketako Estatistika Organo Espezifikoa (2018) Gizarte Beharrei buruzko Inkesta, GZEE-GBE. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Pérez-Díaz, J.; Abellán, A. (2018). Envejecimiento demográfico y vejez en España. 28. zk (11-47 or.)

Prieto, D.; Herranz, D.; Rodriguez, P. (2015). ENVEJECER SIN SER MAYOR: Nuevos roles en la participación social en la edad de la jubilación. Estudios de la Fundación Pílares para la autonomía personal, 2.

Sancho, M.; Del Barrio, E. (2015). Euskadiko 55 urteko eta hortik gorako Herritarren Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (ECV+55). Eusko Jaurlaritza.

Solís, C. V.; Buján, R. M.; Chauca, M. P. (2018). Introducción. Experiencias, ámbitos y vínculos cooperativos en el sostenimiento de la vida. In *Cuidado, comunidad y común: experiencias cooperativas en el sostenimiento de la vida* (15-50 or.). Traficantes de Sueños.

Subirats Humet, J. (2018). Una concepción del envejecimiento abierta e inclusiva: edad y ciudadanía. Aula abierta.

Subirats, J. (2016). Cambio de época y personas mayores: Una concepción de ciudadanía abierta e inclusiva. In *Edades en transición, envejecer en el siglo XXI: edades, condiciones de vida, participación e incorporación tecnológica en el cambio de época* (21-43 or.). Ariel.

United Nations Economic Commission for Europe. (2021). Guidelines for Mainstreaming Ageing. Nazio Batuak.

Walker, A.; Maltby, T. (2012). Active ageing: A strategic policy solution to demographic ageing in the European Union. International journal of social welfare, 21, S117-S130.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES